

Urtekaria



Zorionak eta urte berri on!



LASA
jatetxea

Ozaeta jauregia - BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es
reservas@restaurantelasa.es

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibagarai 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarti J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibagarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

*Zorionak eta
urte berri on!*

AURKIBIDEA

URTEKARIA DEBAGOIENA 2018

Urtea hilabetez hilabete

Urtarrila	4
Otsaila	6
Martxoa	8
Apirila	10
Maiatza	12
Ekaina	14
Uztaila	16
Abuztua	18
Iraila	20
Urria	22
Azaroa	24
Abendua	26

Protagonistak 28

Aztergai

Gizartea 2018	30
Ekonomia 2018	33
Kirola 2018	36
Kultura 2018	39

Urteko onena eta txarrena 42

Datorrena

Debagoiena 2019	44
Gipuzkoa 2019	45
Euskal Herria 2019	46
Mundua 2019	47

OHARRA

Urtekeri hau abenduaren 21erako amaituta zegoen. Realak Asier Garitano kargutik kendu ostean aldaketa batzuk egin behar izan ditugu. Dena den, ez da posible izan orrialde guztiak aldatzea.

EDITORIALA

Pentsiodunen eta emakumeen aldarrikapen urtea

Pentsiodunen eta emakumeen aldarrikapenek kaleak hartu dituzte inoiz baino nabarmen eta ozenago 2018an. Gaiak hedabideetan lerroburu nagusi bihurtu dira eta agenda politiko-mediaticoan eragin dute. Pentsiodunen kontua Espainiako aurrekontuen negoziagaien artean izan du EAJk; eta Jaurlearitza erantzeko, EH Bilduk. Jeltzaleen eta bilkideen arteko hutsean geratu da, azken kaltetua euskal gizartea izanik, pentsioen gaia ez baita erretiratuen kontua bakarrik. Euskal Herriko bi familia politiko nagusiak ezinbestean daude elkarrekin aritzera behartuak, herriarentzat estrategikoak diren gaietan. Eta gizarte gaiak ere badira.

Uholde moreak kaleak eta plazak bete ditu. Hainbat gertaera eta erabaki lazgarrik *La Manada*-koen epaia da oihartzun handienakoa, baina ez da bakarrik izan kontzientziak piztu dituzte eta jendea kalera atera da. Kolektibo feministetatik bultzatutako Martxoaren 8ko lanuzteak lagundu egin du genero berdintasunaren aldeko aldarria bistarazten.

Euskara erabiliago izan dadin azkeneko urteotan egin den ekimen arrakastatsua da 2018an mamitu den Euskaraldia –beste ekimen arrakastatsua batzuetan bezala, erakunde publikoen eta gizarte eragileen elkarlanetik–. 11 egunez, ohikoa baino euskara gehiago egin dela erakusten dute neurketa-datuek. Baina erronka da, ariketa sozialaren ostean ere, eguneroko bihurtzea euskaraz aritzea.

Gazien artean, nabarmenena, Fagor Etxetresnen errautsetatik sortutako Edesa Industrialen porrota. Aurtengoa da Mondragoeko kooperatiben ikur izan zen etxetresna enpresa indartsu eta oparoaren behin betiko amaierakoa. Kontrara, pozgarriak izan dira Gureak Taldeak Bergarako Mayc-Candy zegoen lursailetan jarduera industrial berrabiatu izana, garapenerako bideak urratuz edota Oñati-ko Ulma Packaging-en lantegi berria.

Fagor Etxetresnen erorketak eragindako zauriak sendatu barik daude oraindik, kooperatiba taldetik ahalegin berezia egin den arren lanik barik geratutakoak birkokatzeak. Ordainduko eta Eskuratuko bazkide ohiek Mondragon Taldearen aurka jarritako demandak korporazioari eman dio arrazoi, maiatzeko epaiketa mediaticoaren ostean. Kontua ez da amaitu, nahiz eta epaiketan egon direnek indartsu ikusi duten Mondragon Taldeko defentsa.

Memoriaren Mahaian aurrerapausoak

Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi ohia ETak erail zuenetik 10 urtera etorri da Arrasateko Udaltzaren lehen adierazpen instituzional adostua –udaltzako talde guztiek, baita EH Bilduk ere– eta omenaldia. Nabarmenezkoa da Arrasateko Memoriaren Mahaian egiten ari diren ahalegina, giza eskubideen urraketa jasan duten herrikideei eta haien senideei aitortza egiteko. ETako biktimenak ez ezik, Estatuaren edo Estatu aparatuenak ere bai. Horretan ere denek bat eginez, baita espetze politika aldatzeko gaitasuna daukan PSE-EE-PSOeren adostasunez ere.

Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren mendeurrenak, sorlekuan, Oñatin, ospatu dira. Euskal Herriko hiru administrazio nagusietako ordezkariak batu dira bertan, baina ez guztiak soka dantzan.

EUSKARA GEHIAGO ENTZUN DA KALEETAN EUSKARALDIARI ESKER; EA HORRELA DEN AURRERANTZEAN

Inportanteena, balio izan du aurrera begira jarri eta urteetarako lan-ildo estrategikoak finkatzeko. Azpimarratzekoa, bestalde, Bergara Zientziaren *Leku historiko* izendatu izana Europako Fisika Elkarteak eta baita 750. urteurreneko ekitaldi piloa ere.

Inoizko ikus-entzule gehien izan dituzten euskarazko bi filmen gidaritzan debagoiendarrak daude *Handia* filmeko zuzendari Aitor Arregi oñatiarra eta *Aupa Etxebeste!*-ko Asier Altuna bergararra. Bada, lehena Espainiako Goya sarietan nabarmendu da; bigarrenak Bergaran errodatu du, berriro, komedia arrakastatsuen segida: *Agur, Etxebeste!*

Kirolean, Gipuzkoako kirol talde nagusia den Realaren lehen taldeak 2018 honetan –kluba sortu eta 109 urtera– dauka lehen aldiz entrenatzaile debagoiendar bat: Asier Garitano. Urtearen hondarreen kendu dute kargutik. Bergararrari ez diote eman nahikoa konfiantza eta denbora bere ideiak taldean txertatzeko.

Amaitzeko, Goiena Komunikazio Taldeari aipamena. Euskarazko kazetaritzako sariketarik inportanteenak, Rikardo Arregik, 30. urteurrenean, kazetaritzako 10 mugarren artean aukeratu du Goiena, EITB, *Euskaldunon Egunkaria*, *Argia* eta beste batzuen artean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.
Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Erredakzioa
Aitor Agiriano, Aitziber Aranburuzabala, Amaia Txinburreta, Amaia Zabala, Arantzazu Ezkibel, Eneko Azkarate, Eneko Azurmendi, Iker Oñate, Imanol Beloki, Itziar Larrañaga, Jokin Bereziartua, Jokin Etxebarria, Josu Bilbao, Julen Iriondo, Larratx Zeberio, Maialen Regueiro, Maider Arregi, Mirari Altube, Mireia Bikuña, Miren Arregi, Monika Belastegi, Oihana Elortza, Sergio Azkarate, Txomin Madina, Xabier Gorostidi, Xabier Urzelai.

Argazkiak

Imanol Soriano, Xabier Urzelai, Real Sociedad, Markel Irizar, Moriarti, Oihan Vega, Bergarako Udala, Euskaltzaindia, Bertsoa.eus, Jonrahm.com, Adweek.com, Puntopunto.com

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Iñaki Iturbe.

Publizitatea
Amaia Mundiñano, Ziorza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa
Ane Bereziar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.
HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kubxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:
SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Honako urtekeri honen edizioa abenduaren 21ean itxi du Goienak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

DEBAGOIENA

Frankismoaren krimenak, ikertu barik

Frankismoaren krimenak ikertzeko kereilak zituzten jarriak Arrasateko eta Elgetako udalek. Ez zuten bide luzerik izan: Bergarako epaitegiak bertan behera utzi zituen kereilok urtarrilean.

DEBAGOIENA

Bergarako lotunea, lizitaziora

Espainiako Gobernuak lizitaziora atera zituen AHTaren Bergarako lotuneko obrak. Iñigo de la Serna Espainiako Sustapen ministroak 2017ko irailean iragarri zuen asmoa, atzerapenei aurre egin guran.

OÑATI

Bi sari 'Handia' filmarendako

Handia filmak bi aitortza izan zituen Feroz sarietan. Hain zuzen ere, epaimahaiaren iritziz, Aitor Arregik eta Josu Garañok zuzendutako egitasmoak zituen kartel eta musika onenak.

OÑATI

Aitor Biain Koru zuzendaria

Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zazpi kontzertu didaktiko zuzendu zituen Aitor Biain koru zuzendari oñatiarrak. "Plazera izan da maila honetako musikariekin jardutea", aitortu zuen.



DEBAGOIENA

Seigarren edizioa hasi zuen Kantarik

Kantari karaoke ikuskizunak urtarrilaren 20an eman zion hasiera seigarren edizioari, Aretxabaletako Arkupe kultura etxeko oholtzan egindako erakustaldian. Aretxabaletako eta Eskoriatzako 200 neska-mutiko inguruk jardun zuten bertan, entseguetan eginikoa ikusarazten. Eta aise ase zuten Kantari.



ARETXABALETA

Bi lagun hil ziren Aretxabaletako zirkulazio istripuan

Urtarrilaren 4ko gauean, ezbeharrira izan zen Aretxabaletako saihebidetan: autobus batek eta motor batek aurrez aurre egin zuten talka. Bi pertsona hil ziren horren eraginez. Eta hurrengo egunean izan zen arrastorik ibarreko errepideetan: autobusek lazo beltzak zeroatzaten. Elkarretaratzea ere izan zen.



LEINTZ GATZAGA

Dorla berria, gatz produkzioa hazteko ahaleginean

Gatz produkzioa indartu guran, dorla berria-gatza egiteko galdara-jarri zuten Leintz Gatzagan. Eta probaldiari ekin zioten: "Bestelako ezaugarriak ditu. Beraz, ikastea dagokigu; horren ostean egingo dugu behin betiko instalazioa", argitu zuten arduradunek. Ordura arte, dorla bakarria zuen Gatz Museoa.

DEBAGOIENA

'Ignaziotar lurraldea' ekimena saritu zuten Fitur azokan

Ignaziotar lurraldea egitasmoak Eden saria jaso zuen Fitur turismo azokan. Hala, aitortuta geratu zen horren iraunkortasuna eta helburuaren bikaintasuna. Zehazki, Debagoiena, Urola Garaia eta Urola Erdia daude murgildurik egitasmoan. Beraz, ibarreko ordezkaritza izan zen sari banaketan.



OÑATI

Ulma Packagingek lantegi berria ireki zuen Goribarren

Lantegi berria zabaldu zuen Ulma Packagingek Oñatin, Goribarren. Eta urtarrilaren 17an inauguratu zuten; tartean, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano eta Oñatiko alkate Mikel Biain izan ziren ekitaldian. Hain zuzen ere, termozigilatze lanetarako egin dute 5.000 metro koadroko lantegi berria.

EGUSKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako
Industrialdea F-04

943 791 844
info@eguskigraf.com

2019a oparotasunez beteta izatea opa dizugu.
Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta
gure zerbitzuak eskeintzen segituko dugulakoan.

liburuxkak
jai egitaruak
pegatinak
kartelak
tarjetak
etiketak

30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura

Inpresio digitala...

ARRASATE**Erasoak eta lapurretak**

Urtarrila hilabete nahasia izan zen Arrasaterendako. Izan ere, hainbat ezbehar izan ziren herrian: erasoak eta lapurretak, hain zuzen. Tartean, pertsona batek labanaz egin zuen eraso Monterronen.

DEBAGOIENA**Danel Gonzalez**

Gipuzkoako lehen jaioberrria

Danel Gonzalez bergararra izan zen Gipuzkoako urteko lehen jaioberrria. Urtarrilaren 1ean jaio zen, 03:30ean, Debagoieneko Ospitalean.

**ESKORIATZA****Jose Aranako erabakia, atzera**

Eskoriatzako Udalak Jose Arana kaletik bideratu gura zituen autobusak. Baina urtarrilean atzera bota zuen erabakia, herritar talde baten eskaerarengatik. Soilik oinezkoentzat izaten segituko du, beraz.

BERGARA**Arrate Bergara** Pilotaria

Emakume Master Cup pilota txapelketan esku hartu zuen Bergaran bizi den Arrate Bergarak. "Ilusioa egin dit finalerdietara iristeak. Baina zaila izango da txapelketa irabaztea", zioen.

**ARAMAIO****Herri Curriculumua aurkeztu zuten**

Aramaioko Herri Curriculumua aurkeztu zuten urtarrilaren 12an, kultura etxean. Egitasmoa eraiki zutenek honako galdera hau izan zuten oinarri: *Zer jakin beharko luke 12 urteko aramaiokoa batek Aramaiori buruz?* Erroka horri helduta, hainbat alor landu zituzten eragile ezberdinek, herritar talde batekin elkarlanean.

**BERGARA****Seminarixoa aretoa inauguratu zuten**

Urtarrilaren 26an inauguratu zuten Bergarako kultur agertoki berria: Seminarixoa. Espazioa bera eraikitzen lagundu duten pertsonak, elkarteak, eragileak eta erakundeak eskertzeko aprobetxatu zuten hitzordua. Aurretik, hilaren 24an, Seminarixoaren kudeaketaren gaineko hausnarketa saioa izan zuten herritarrek.

**ARRASATE****Hitzarmena berritu zuten Eibar taldeak eta Arrasateko Udalak**

Eibar futbol taldeak Atxabalpen segituko du entrenamenduekin, gutxienez, 2021era arte. Arrasateko Udalak eta talde armaginak urtarrilaren 16an berritu zuten hitzarmena. Hain zuzen, 1.200 euro beharrean, hilean 5.450 ordaindu beharko ditu Eibarrek lursaila erabiltzeagatik –BEZA gehitu behar zaie kopuruei–.

ELGETA**Frankismoari lotutako jardunaldietan izan zen Elgetako Udala**

Frankismoaren zigorgabetasunaren kontrako jardunaldiak egin zituzten Bartzelonan; eta Elgetako ordezkariak izan zen bertan. Besteak beste, Bartzelonako alkate Ada Colau, Iruñeko alkate Joseba Asiron, Gazteizko alkate Joseba Urtaran eta Durangoko alkate Aitziber Idigoras ere izan ziren jardunaldietan.

**J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea**

RPS: 266/13

Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
www.gorosabeldental.com

Bisita ezazu gure webgune berria: www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Odontologia Orokorra.
- AHO eta INPLANTEEN ZIRUGIA punta puntako teknologiarekin.
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, zirurgia eta gainontzeko tratamenduak

Zorionak eta urte berri on!

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENO!!

DEBAGOIENA

Ikasleak, greba eskubidearen alde

Arizmendiko Ikasle Abertzaleek protesta zuten deituta otsailaren 22rako; eta ehunka ikasle batu zituen Arrasateko hitzorduak, *Greba eskubidea orain! Arizmendi bete zure hitza* lelopean.

OÑATI

Hainbat sari triatloirendako

2017ko Euskadiko duatloi eta triatloi zirkuituetako atleta onenak saritu zituen Euskadiko Federazioak. Besteak beste, Miren Josune Bikuñak, Beñat Ormaetxeak eta Antxintxikak jaso zituzten aitortzak.

6.000 DEBAGOIENA kilo

Ohi moduan, Saharara elikagaiak eta arropak bidaltzeko kanpaina solidarioa izan zen abian; ia sei tona batu ziren horretan. Ibarrean, aurreko urteetako kopuruak gainditu egin ziren, gainera.

ARETXABAETA

Babes zibileko merezimendua

Otsailaren 24an, bereizgarri gorriko meritu domina jaso zuten Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo eta Mikel Zabalza mendizaleek. Hiru horiek Valero Annovazzi alpinista erreskatatu zuten WOPeak17 espedizioan.



BERGARA

Hainbat arrain hilda Soraluzen eta Osintxun


Deba ibaian izandako isurketa baten ondorioz, hainbat arrain hilda azaldu ziren Soraluzen eta Bergarako Osintxu auzoan; otsailaren 12an izan zen ezbeharra. URA agentziak hurrengo egunetan egin zuen ikerketaren arabera, zianuroa izan zen horren eragile. Hala, agentziako ordezkariak "oso larritzat" jo zuten gertatutakoa.



DEBAGOIENA

Hamar Goya sari 'Handia' filmarentzat

Aitortzaz betetako gaua bizi izan zuen *Handia*-ko lantaldeak otsailaren 4an, Goya sarietan. Izan ere, hamahiru izendapen zituzten, horietako hamar irabazi zituzten. Besteak beste, jatorrizko gidoi onenaren saria jaso zuen Aitor Arregi oñatiarrak, Jon Garaño, Jose Mari Goenaga eta Andoni de Carlosekin batera.



ARETXABAETA

Miriam Urkia euskaltzain oso izendatu zuten

Euskaltzaindiak euskaltzain berriak izendatu zituen otsailaren 23an, Iruñean. Hautaketan, Miriam Urkia aretxabaletarrak eta Roberto Gonzalez de Viñaspre bilbotarrak lortu zuten gehiengo osoa. Gauzak horrela, hartuak dituzte Euskaltzain emeritu diren Patxi Uribarrenen eta Joan Mati Torrealdairen lekukoak.

ARETXABAETA

Urkulu husten hasi ziren, gainezka egin ondoren

Urkulu urtegiak gainezka egin zuen otsailaren 4an. Eta, hori horrela, arduradunek hustubideak zabaldu zituzten: hasierako probaldian, bi hustubide izan zituzten zabalik –hamar minutuz–. Prebentzio erabakia izan zen, hurrengo egunetarako eguraldi iragarpenen eragindakoa –elurra eta euria zegoen iragarritan–.

ELGETA

Desegiteko erabakia hartu zuen Elgetako Gazte Asanbladak

Elgetako Gazte Asanbladak bere ibilbidea eteteko erabaki hartu zuen otsailean. Eta ostean egin dako batzar irekian adostu zuten zer egin gaztetxeko giltzekin: Elgetako Udalarri eman zioten. Aurretik, baina, eraikina husten eta txukuntzen jardun zuten elgetarrek; belaunaldi ezberdinak batu zituen auzolanak.

DEBAGOIENA

Pentsio "duinak" aldarrikatzeko protestak

Pentsiodunak ez zeuden ados Espainiako Gobernuak iragarritako %0,25eko igoerarekin. Eta protesta ugari egin zituzten ibarreko herrietan zein EAEko hirietan. Tartean, Agujupens elkarteak jakinarazi zuen 350 pentsiodun joan zirela Donostian egindako protestara. Otsailaren 22an zuten hitzordua.



San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista

Urte berri on!

BERGARA

Ugarterena, amodiozko gutunik onena

Urtero lez, amodiozko gutunen eta adieren lehiaketa antolatu zuen Jardun euskara elkarteak. Eta Itziar Ugarte oñatiarrak irabazi zuen sari nagusia. Hilberri zen amonari idatzi zion Ugartek.

ARETXABALETA

Garazi Estebez Txirrindularia

Gura baino kontrario gehiago izan zituen arren, Espainiako Kopa bere egitea lortu zuen Garazi Estebez aretxabaletarrak –pistan–. Euskal Selektzioarekin jardun zuen.



DEBAGOIENA

Ibarrekoak, First Lego Leaguen

First Lego League lehiaketa esku hartu zuten Arizmendi Ikastolako eta Mariaren Lagundiko zenbait ikaslek. EAEko kanporaketa gairiditerik lortu ez zuten arren, hainbat sari eskuratu zituzten.

ARRASATE

Maialen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe Atletak

Emaizta esanguratsuak lortu zituzten bi atletak: Espainiako pista estaliko txapelketan urrea lortu zuen Ruiz de Azuak; eta 4,40 metroko saltoa egin zuen Axpek.



DEBAGOIENA

Otsailak zuriz koloreztatu zituen herriak

Bi elurte izan ziren otsailean. Hain zuzen ere, hilaren 28an, hilabete azken egunean, egindakoa izan zen gogorrena. Hala, zenbait arazo sortu ziren goizeko lehen orduan. Egunak aurrera egin ahala, baina, gora egin zuen elur mailak. Eta normaltasuna berreskuratzea ekarri zuen horrek. Iragarpenek ez zuten hutsik egin.



BERGARA

Hilzoriko Kristoa, San Pedro parrokiara bueltatu zen

Urtebete Bergaratik kanpo egin ostean, otsailaren 17an itzuli zen Hilzoriko Kristoa San Pedro parrokiara. Hain zuzen ere, Sevilatik ekarri zuten, irudiaren zaharberitze prozesua bukatuta. Emaiztarekin "pozik" azaldu ziren parrokoa eta kaperaren zaharberitze lanetan zihardutenak: "Lan ona egin dute".



ANTZUOLA-ARAMAIO

Musak hainbat txapel utzi zituen ibarrean

Merezimendu osoz irabazi zuten Debagoieneko bi bikotek musean. Batetik, Joseba Azkarate eta Claudio Cabrera antzuolarrek Gipuzkoako txapela jantzi zuten. Eta Arabako txapelketan ere izan zen saririk: Elena Arrizabalaga eta Ana Mari Arrizabalaga ahizpek osatutako bikoteak irabazi zuten.



Hemen
GARBIKETAK

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

Zerionak eta urte berri on!

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA





ANTZUOLA

Lur mugimendua egonkortzeko lanak

Autobideko obrek eragindako Eztalako lur mugimendua egonkortzeko lanak hasi zituzten. Lur mugimendu bortitzagoak identifikatzen hasiak ziren eta. Hainbat kalte eragin zituzten horiek.

DEBAGOIENA

Gipuzkoako ordezkariak, Epelen

Epeleko konpostatze planta martxan jarrita, bertan izan ziren Diputazioko zenbait ordezkari; tartean ziren Jose Ignacio Asensio –Ingurumen diputatua– eta Cesar Gimeno –GHKko burua–.

ARETXABALETA

Kepa Errasti Aktorea

Beste aitortza bat jaso zuen Kepa Errasti aktoreak: XVIII. Donostia antzerki saria. Zehatz esanda, *Mami Lebrum* lanean egindakoagatik eman zioten saria.



OÑATI

'Arkeologoak' ikuskizuna, kalean


Ganbara kantu eskolako neska-mutikoeek *Arkeologoak* ikuskizuna estreinatuta zuten martxoaren 16ko asteburuan. *Kantua kalean* ekimenaren baitan aurkeztu zuten egitasmoa.



DEBAGOIENA

Martxoaren 8a: aldarriz bete zen kalea

Martxoaren 8an, berdintasunaren aldeko aldarriekin bete ziren munduko kaleak. Eta Debagoieneko herriek ere bat egin zuten nazioarteko ekimenarekin –grebarako eta protestarako deiak zeuden eginak–. "Emakumerik gabeko herrialdea gelditu egingo litzateke," aldarrikatu zuten, besteak beste.



ARRASATE

Isaias Carrasco: omenaldia, 10. urteurrenean

Isaias Carrasco omentzeko hainbat ekintza izan ziren martxo hasieran, ETAK hil zuenetik hamar urte pasatuta. Tartean, adierazpen instituzionala onartu zuen Arrasateko Udalak –lehen aldiz–, EAJren, PSE-EEren, Baleikereren eta Irabaziren babesarekin. Eta urteroko omenaldia ere egin zioten.

ARETXABALETA

'Hura zen Urkulu' dokumentalaren aurkezpena

Urkulu urtegia eraiki aurretik Goroeta auzoan eta inguruetan zegoen bizimoduaren berri jaso gura izan zuten Goienak eta Lorramendi elkarteak. Hala, *Hura zen Urkulu* dokumentala egin zuten elkarlanean. Eta harrera beroa izan zuen egitasmoak. Estreinaldian, jendez lepo zegoen Arkupe kultura etxea.



ARAMAIO

Teilamendiren inguruko liburua aurkeztu zuten

Teilamendi 1977... eta herria josten hasi zen izeneko liburua aurkeztu zuten martxoaren 22an. Aramaioko udaletxeko osoko bilkuran egin zuten aurkezpen ekitaldia. Orduko lau alkateren mahai ingurua izan zen bertan –Julian Unzueta, Jose Luis El-koro, Jose Antonio Altuna Txatillo eta Luis Mari Ajuriagerra–.

ELGETA

Azken urratsak egin zituen Elgetako gaztetxeak


Gazte Asanblada desegiteko eta gaztetxea ixteko erabakia hartu zuten Elgetako gazteek. Eta gura moduko agurra egin zioten hari, 22 urteko ibilbideari bukaera emanda. Tartean, triki-poteoaz, kantu bazkariak eta elektrotxaragaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Lagun asko batu zituen hitzorduak.



BEHI-ALDE, KOOP. E.
Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 pk
20500 Arrasate

urte berri on!

Tel.: 945 45 01 00
bulegoa@behialde.com



BERGARA

Eloi Krespo eta Vicente Uribesalgo
Mus jokalaria



Eloi Krespok eta Vicente Uribesalgok irabazi zuten Euskal Herriko X. Mus Txapelketa, martxoaren 10ean.

ESKORIATZA

Luiziak Eskoriatzako bidegorrian

Euriteek hainbat luizi eragin zituzten Eskoriatzako bidegorrian. Azkenean, Intxaurtuetakoz zubitik Olazarreko tunelera doan bide zatia ixteko erabakia hartu zuten teknikariek.

ARRASATE

Julen Mendizabal, aske

Martxoaren 31n utzi zuten aske Julen Mendizabal arrasatearra, ia bost urteko espetxealdiaren ostean. Eta harrera beroa egin zioten herrikideek, *Ongi etorri, Julen* pankarta eskuan.

OÑATI

Jose Antonio Azpiazu
Historialaria



Liburu berria aurkeztu zuen Jose Antonio Azpiazuk martxoaren 27an: *Juegos y apuestas en la historia de Euskal Herria*.



BERGARA

Pol-pol: 75 urteak, liburu bakarrean

Pol-pol mendizale taldearen 75. urteurrena ospatzeko, martxoan mendi hamabostaldia izan zuten bergararrek. Tartean, haren historia biltzen duen liburua aurkeztu zuten: *Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat. 1942-2017*. Bestetik, egoitza berria inauguratu zuten mendizale taldeak.



OÑATI

Beratu musika jaialdia egin zuten, estreinakoz

Beratu musika jaialdiaren estreinako edizioa izan zen martxoan. Era askotako ekintzez gozatzeko aukera izan zuten oñatiarrek -musikaren alorrari lotutakoak, betiere-: hitzaldiak, hausnarketa saioak, kontzertuak... Antolatzaileak "pozik" ziren egitasmoak izandako harrearekin.



DEBAGOIENA

Kros solidarioa, Bernat Etxepare Lizeoaren alde

Baionako Bernat Etxepare Lizeoak martxan zuen *Hazten gaitu, hazten dugu* diru bilketa kanpainari ekarpena egin gura izan zioten ibarreko ikastolek. Hala, elkartasun krosak egin zituzten martxoaren 23an ibarreko bost herritan -Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara eta Arrasate-.



BERGARA

Unai Perez de Arenaza hil zen, mendi istripuan

Unai Perez de Arenaza mendizale, eskalatzaile eta eskiatzaile bergararra hil zen Katalunian, Aran ibarrean, mendian ziharduela elur-jausi batek harrapatuta. Martxoaren 22an gertatu zen ezbeharra, 10:00 aldera. Hain zuzen ere, une hartan, ikerketa biologikoa egiten ziharduen Perez de Arenazak.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

IBIL MENAJE tel. + 34 943 763544, email: comercial@bil.net, export@bil.net, www.ibilmenaje.com

75 Years 1942 - 2017

ARETXABAETA

Lehen alkate abertzalea ezagutaraziz

Aitor Antxia Leturiak liburu batean jaso ditu Pedro Jauregi Leibarri buruzkoak, *Pedro Jauregi Leibar, Aretxabaletako lehen alkate abertzalea* izenburupean. Apirilaren 14an aurkeztu zuen lana, Arkupe kultura etxean.

BERGARA

Rezustak ezin txapela jantzi

Danel Elezkanok eta Beñat Rezustak ezin izan zuten eskuz binakako txapelketa irabazi, apirilaren 8ko finala 22-9 galduta. Partidu bukaeran, bergarra ez zegoen gustura egindako partidurekin.

BERGARA

Auzuen Arteko Eguna, lehenengoz

Bergarako auzoetako gazte talde baten ekimenez, Auzuen Arteko Eguna ospatu zuten apirilaren 21ean. Uberan egin zuten egitasmoaren lehen edizioa. Auzoen arteko harremana indartzea dute helburu.

ARRASATE

Ane Zabala Mendi lasterkaria

Emakumeen artean, Ane Zabala arrasatearrak egin zuen denborarik onena Arrasate-Udalatx lasterketan. Zabalak beherako bidean egin zien ihes beste mendi lasterkariei.



ANTZUOLA

Emakunde saria, Virginia Imazendako

Virginia Imaz clown eta aktoreak jaso zuen 2017ko Emakunde saria. Hain justu ere, Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik jaso zuen aitortza. Modu horretan, azken 30 urteetan berdintasunaren aldeko sentsibilizazioan egindako lana aitortu gura izan zion Emakundek Imazi.



DEBAGOIENA

Iruñekoa "bortxaketa" izan zela salatu zuten

Ibarrean "amorrua" eta "haserrea" eragin zituen 2016ko sanferminetako erasoaren epaiak; epaileek abusu delituengatik zigortu zituzten bost akusatuak. Hala, protesta ekimenak antolatu ziren Debagoieneko herrietan, ebazpenarekiko desadostasuna agertu eta sanferminetan gertatutakoa "bortxaketa" izan zela salatzen.



ESKORIATZA

Errepide zati bat erori zen saihesbidean, euriteengatik

Euri jasek hainbat kalte eragin zituzten Eskoriatzan. Tartean, herriko saihesbidea itxi beharra izan zuten, Lete auzora bidean dagoen errepide zatia hondoratu ostean –berregokitze lanak hasi zituzten bertan–. Hori horrela, zirkulazioa Jose Arana oinezkoendako bidera lekualdatzeko erabakia hartu zuten.



BERGARA

'Puertollanoko heroiak' Bergaran elkartu ziren

Jesus Aranbarri arrasatearrak sartutako gol bati esker –berdinketaren gola; 2-2 amaitu zen lehia–, 1967an Puertollanon (Ciudad Real) Lehen Mailan jokatzeko txartela lortu zuten Realeko jokalarari ohiak otorduan elkartu ziren Bergaran, Jesus Arantzabal *Gaztelu*-ren herrian. Hura ere Realean zen sasoi hartan.

**ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:****BALORAZIO PACKA:**

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera balorazio-rako portzentaje bereziak ere.

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulaketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murrituko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

Urte Berri On!**ZURICH**

MF del Mar Urralia Naguerola

Montxon kalea 5 behea / 20560 / OÑATI

Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20

Faxa: 943 78 31 36

OÑATI**'Harittu' prozesua aurkeztu zuten**

Prozesu berriari ekin zion EH Bilduk, "jauzi kualitatiboa" emateko garaia dutela iritzita. Hala, koalizio izatetik komunitate izatera pasatzeko bitarteko litzateke *Harittu*. Gainera, lokal berria inauguratu zuten.

OÑATI**Irazanen ikuskizun berria, estreinakoz**


Moganbo kabaret ikuskizuna aurkeztu zuten Irazan Antzerki Guneak gaztelekuan. Eta harrera beroa izan zuen hitzorduak. Emanaldia bukatuta, "pozik" ziren Irazanekoak.

LEINTZ GATZAGA**Juan Bengoa, Leintz Gatzagako alkate**

Leintz Gatzagako alkate kargua utzi zuen Eneka Zankadak apirilaren 26ko osoko bilkuran. Juan Bengoak hartu zuen haren lekua. "Nire helburua ez zen alkate izatea, baina hala izan da", esan zuen Bengoak.

ESKORIATZA**Oihana Arana** Bertsolaria

Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa irabazi zuen Oihana Arana eskoriatzarrak. "Gustura" zegoen apirilaren 20ko finalean egindakoarekin. 140 ikus-entzule erakarri zituen hitzorduak.

**ELGETA****Intxortako erresistentzia gogora ekarri zuten**

Elgetarrek bi asteko egitaraua antolatu zuten, Intxortako erresistentziaren 81. urteurrena gogora ekartzeko. Besteak beste, frontean hildako 231 gudari eta miliziano omendu zituzten apirilaren 22an. Ostean, frankistek herrian sartzerakoan egindako gehiegikeriak irudikatu zituzten, *Elgetaren gainbehera* errekreazioarekin.

**DEBAGOIENA****Xamatx eta Gorosarri taldekoak, elkarrekin**

Debagoieneko Dantzari Egunak 25. edizioa zuen aurtengoa –Arrasaten egin zuten–. Eta, beraz, izan zen apartekorik. Besteak beste, bertan izan ziren Bergarako Xamatx eta Eskoriatzako Gorosarri dantza taldeak. Zehatz esanda, hitzordurako propio, bat eginda ziren horiek. Gainerakoen txalo zaparrada jaso zuten.

ALDEDI

Urte berri on!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

ARRASATE

Elikagai banaketa berreskuratu zuten

Gipuzkoako Elikagaien Bankuko elikagai banaketa berriro hasteko akordioa sinatu zuten Harreman GKEK, Caritasek eta Udalak. Hala, elikagaiak jasotzen hasi ziren, berriz ere, Arrasateko 604 lagun.

BERGARA

Ereindajan: egoitza inauguratu zuten

Ereindajan-en denda-topagune berria inauguratu zuten Bergaran, maiatzaren 13an. Jende ugari egin zuen bat hitzorduarekin. Zabaldu aurretik, 160 bazkide zituen Ereindajan-ek.

ARRASATE

'Memoriaren plaza', Politeknikoan

Memoriaren plaza unibertsitatean ekimena heldu zen Arrasateko Goi Eskola Politeknikora –maiatzaren 17an inauguratu zuten–. Bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko konpromisoak zituen erdigunean.

BERGARA

Asier Garitano Entrenatzailea

Realarekin akordioa eginda, talde txuri-urdineko entrenatzaile bilakatu zen Asier Garitano bergararra. Aurkezpen hitzorduan, erronka berriari heltzeko gogoz agertu zen Garitano.



DEBAGOIENA

'Mondragon' auzia: ahozko bista Bergarako epaitegian

Ordainiduren eta Eskuraturen salaketak epaitegietara eroan zuten Mondragon korporazioa. Hala, euren argudioak azaltzeko tartea izan zuten bi aldeek, lau eguneguz iraun zuten ahozko bistan. Besteak beste, Mondragoneko zenbait zuzendarik deklaratu zuten lekuko gisa. Epaia emateko gertu geratu zen auzia.



BERGARA

25. urtemuga ospatu zuten Bedelkarrek

Merkatariek eta bezeroek elkarrekin ospatu zuten Bergarako dendarien elkartearen 25. urtemuga; herritarren fideltasuna eskertu gura izan zuten merkatariek. Eta, horretarako, jai giroa jarri zuten Espoioian. Hain zuzen ere, jatekoa, edatekoa, argazkiak egiteko gunea eta kanturako lekua izan ziren.



ARRASATE

Trikiti eta pandero jole ugari Trikitixa Egunean

Antzuola hartu zuten Debagoieneko XIV. Trikitixa Egunak. Trikiti eta pandero jole ugari batu zituen ekimenak –270 inguru–: Antzuolakoek aparte, Bergarako, Aretxabaletako, Arrasateko, Oñatiko, Eskoriatzako, Aramaioko, Sorluzeko, Zumarraga-Urretxuko eta Bermeoko jendea izan zen horretan.

ARRASATE

Shot! grabazio estudioa, erabat kiskalita

Shot! grabazio estudioak su hartu zuten maiatzaren 11n. Une hartan, ez zegoen inor bertan. Hori bai, lekukoek azaldu zuten kalte material "oso larriak" eragin zituela suak. Hala, musikaren munduko jende askoren babesa jaso zuten estudioak. Shot! musika sortzaile askorendako izan baita grabazio leku.



ELGETA

Debagoieneko Artzainen VI. Eguna

Artzainen lanak ematen duena ikusteko, gaztak erosteko, gatzatuak egiten ikasteko eta artilea zela landu daitekeen ezagutzeko aukera izan zuten Elgetako plazan. Harrera ona izan zuen ekimenak.

DEBAGOIENA

Pello Zabala eta Sabin Salaberri

Ohorezko euskaltzainak

Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zituen Zabala Arantzazuko frantziskotarra eta Salaberri aramaioarra.



ESKORIATZA

Atxorrotx eguna, giro onean

Euriari izkin eginez, giro onean ospatu zuten Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna, maiatzaren 12an. Era guztietako ekintzez gozatzeko aukera izan zuten herritarrek: talo dastaketa, paella-jana, kontzertuak...

ARAMAIO

Aitor Ugarte Bertsolaria

Aitor Ugarte aramaioarrak irabazi zuen Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Legutio izan zuen finalerako jardun-leku. Bukatuta, "pozik" zegoen Ugarte.



ARETXABALETA

Euskal Biraren hirugarren etapa, Pieters-entzat

Aretxabaletan hasi eta bukatu zen Euskal Biraren hirugarren etapa. Eta DTL taldeko Amy Pieters-ek egin zuen denborarik onena -3.02.00-, esprinta irabazita. Haren atzetik, seiko taldetxo bat sartu zen gain-gainean. Hain zuzen, Fahlin (WHT), Koppenburg (CBT) eta Ane Santesteban (ALE) sartu ziren Pieters-en ostean.



ANTZUOLA

Mendilibar eta Labaka, mahai-inguruan

25. urtemugaren baitan, hainbat ekintza antolatu ditu Antzuolako Kirol Elkarteak urtean zehar. Besteak beste, Jose Luis Mendilibar Eibarko entrenatzailearen eta Mikel Labaka Real Sociedad B taldeko entrenatzailearen mahai inguruaz gozatzeko aukera izan zuten antzuolarrek. Harrobia, euskara... izan zituzten hizpide.



ARRASATE

Arizmendiarrietari buruzko dokumentala aurkeztu zuten

Arizmendiarrietari. El hombre cooperativo film dokumentala aurkeztu zuten maiatzaren 4an, Arrasateko Amaia antzokian. Eta, oro har, harrera ona izan zuen ikus-entzunezkoak. Besteak beste, Arizmendiarrietaren bizitza eta obra "oso ondo" jasoak zeudela azaldu zuen haren ikasle eta lagun Javier Retegik.



LEINTZ GATZAGA

Foru Aldundiko ordezkariak, Leintz Gatzagan

Landa Gipuzkoa egitasmoari lotuta, maiatzaren 24an Leintz Gatzagan izan zen Foru Aldundiko ordezkariak. Izan ere, urtean zehar, lurraldeko herri txikiak ezagutzen izan da Foru Aldundia, erakundearen laguntzarekin herrian bultzaturiko proiektuak ezagutu eta aurrera begirako asmoak ezagutu guran.

OÑATI

Hunkituta, gogoan izan zuten Beristain

Omenaldi xume baina hunkigarria eskaini zioten Iñaki Beristain frantziskotarra zenari maiatzaren 26an, Arantzazuko Adiskideek antolatuta; izan ere, lagun giroan elkartu ziren haren gertukoak, senideak eta ezagunak. Besteak beste, Arantzazuko abesbatzaren eta hainbat bertsolariren ekarpenak izan zituen omenaldiak.

TXANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
Julian Uribeetxeberria Olalde
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54

Zorionak eta urte berri on!



OÑATI

Oñatiko Udala, ohorezko bazkide

Mendeurrena egin berri, Oñatiko Udala ohorezko bazkide izendatu zuen Eusko Ikaskuntzak. Hain zuzen, Santa Anan egindako batzar orokorrean jaso zuen aitortza herriko alkateak, ekainaren 2an.

ARRASATE

Aprentizen Eskolaren bidea, ikusgai

Aprentizen Eskolaren ibilbidea biltzen zuen erakusketa izan zen ikusgai Kulturaren, ekainaren 1eko astean. Zehatz esanda, 100 argazki historiko inguruko sorta izan zuten ikusgai arrasatearrek.

DEBAGOIENA

Edesa Industrialek, behin betiko agur

Edesa Industrialeko eta Geyserreko langileak ekainean hasi ziren kaleratze gutunak jasotzen. "Porrota aurreikus" zitekeela adierazi zuten langileek. Protesta ekitaldiak izan ziren Arrasaten aurreko hiletan.

OÑATI

Xabier Murgiondo eta Aimar Erostarbe

Txirrindulariak

Euskadiko txapeldun bilakatu ziren bi txirrindulari oñatiar: Murgiondo, 23 urtez azpikoetan; eta Erostarbe, kadete mailan.



OÑATI

Egindako lana aitortu zioten Elortzari

Jerardo Elortza filologo oñatiarra omendu guran, kultura aste berezia antolatu zuen herritar talde batek. Eta ekainaren 9koa izan zen ekintza sortako hitzordu nagusia: omenaldi ekitaldia egin zioten Elortzari, Oñatiko Santa Ana antzokian. Besteak beste, egiten duen lana aitortu gura izan zioten oñatiarrek.



DEBAGOIENA

Uholdeak izan ziren Bergaran eta Antzuolan

Ekainaren 3ko euriteek hainbat kalte eragin zituzten Debagoiengan; Antzuolan eta Bergaran utzitakoak izan ziren ikusgarrienak. Tartean, "kalte larriak" izan ziren Antzuolako Torresoroa eraikinean. Hala, kalera irten ziren herritarrak, urak utzitakoa garbitzera. Haiekin "eskertuta" agertu zen Antzuolako alkatea.



OÑATI

Emakumeak Corpus prozesioan dantzan, lehenengoz


Oñatiko Corpus prozesioan jardun zuten Oñatz dantza taldeko bi emakumek –ekainak 3-. Eta, horretan geratu barik, aste bukaerako gainerako hitzorduetan ere izan zen emakume dantzarien presentziarik. Esan beharrekoa da orain arte Oñatzeko mutilen artean banatu izan dela prozesioan dantza egitearen ardura.



OÑATI

Altsasukoak gogoan 'Fan Hemendik' egunean

Guardia Zibilak herritik eta Euskal Herritik "alde egiteko" eskatuz, manifestazioa egin zuten Oñatin ekainaren 30ean. Altsasuko gazteak oso gogoan izan zituzten. Kuartel aurrean, AVT Terrorismoaren Biktimen Elkarteko dozena bat lagun ziren, *Egia, memoria, duintasuna eta justizia* zioen pankartarekin.



ARETXARGI
 aretxargi@aretxargi.com
 BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA
 ☎ 943 532 628 📞 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

Urte berri on!



ARAMAIO**Espainiako bandera, udaletxean**

Epaitegiak hala aginduta, Espainiako bandera jarri zuten Aramaioko udaletxean. Ordura arte, herriko bizilagunen naziotasunak ordezkatzen zituzten banderak zituzten bertan jarriak.

ARETXABAETA**Markel Uriarte** Txirrindularia

Espainiako Enduro Txapelketa irabazi zuen Markel Uriarte txirrindulari aretxabaletarrak. Ekainaren 22ko asteburuan ziurtatu zuen txapela, Tuñako (Asturias) proban.

**ARETXABAETA****Puntaik Punta jaialdia ospatu zuten**

Puntaik Punta bidezidor jaialdia egin zuten ekainaren 15eko asteburuan, Aretxabaletan. Natura eta kultura erdigunean, era guztietako ekintzez gozatzeko aukera izan zen –kontzertuak, mendi ibilbideak...–.

BERGARA**Xabi Labaka** Igerilaria

Xabi Labaka igerilari bergararrak 25 kilometro pasako Ultraswim 2018 zeharkaldian esku hartu zuen –Eivissan egiten da hori–. Hirugarren bukatu zuen igeriketa proba.

**DEBAGOIENA****'La Manada'-ren auziari lotuta, protestan**

Iruñeko erasotzaileak behinik behin kalean uzteko erabakiak haserrea piztu zuen Debagoiengan –Nafarroako Auzitegiarena izan zen erabakia–. Hala, ekainaren 22ko aste bukaeran, hainbat protesta ekimen izan ziren ibarrean. Besteak beste, elkarretaratzeak izan ziren Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan.

**DEBAGOIENA****5.000 debagoiendar giza katean**

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuak lotu zituzten Gure Esku Dago-k ekainaren 10ean, giza kate bidez. Eta 5.000 debagoiendar inguruk egin zuten bat hitzorduarekin. Besteak beste, Maltzaga aldean eta Zigoitian izan ziren ibarreko herritarrak, erabaki gura dutela aldarrikatzeko.

**ARETXABAETA****Realak Oihana Aldai fitxatu zuen urtebeterako**

Oihana Aldai atezaina aretxabaletarraren fitxaketa iragarri zuen Realak. Horrenbestez, behinik behin, Aldai talde txuri-urdineko jokalaria izango da 2019ko ekainaren 30era arte. Atezainak "ilusioz" heldu zion erronka berriari: "Beti da pozgarria zure lurraldeko taldearen koloreak defendatzea".

ESKORIATZA**Bi hilabetez itxita egon ondoren, berriro zabalik saihesbidea**

Bi hilabetez euriteek eragindako kalteak konpontzen jardun ostean, ekainaren 22an zabaldu zuten Eskoriatzako saihesbidea. Besteak beste, Gipuzkoako Bide Azpiegitura diputatu Aintzane Oiarbidek eta Eskoriatzako Hirigintza eta Mugikortasun zinegotzi Josu Ezkurdiak esku hartu zuten irekiera hitzorduan.

**ARETXABAETA****Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunean, festa eta aldarria**

Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna aitzakia, ekintza sorta bateratua zuten antolatutako ibarreko LGTBIQ+ Asanbladak eta talde feministek ekainaren 28rako –Aretxabaletan egin zituzten egunekoak–. Eta jende ugari egin zuen bat hitzorduarekin, *Normaltasuna popatik hartzer*a lelopean.



ileak
mari karmen ile apaindegia

Gabon zoriontsuak izan!

san lorentzo 9 A behea
tel.: 943 71 60 46
OÑATI

ARRASATE

Idea lehiaketa Monterron parkerako

Monterron parkea herrira irekitzeko ideia lehiaketa jarri zuen abian Udalak, eta proposamenekin erakusketa zabaldu zuten uztailean. Iraileko bigarren astera arte egon zen ikusgai.

ELGETA

Kultura ekintzen aldeko hitzarmena

Uztailaren 2an egindako ezohiko batzarrean, udalbatzak aho batez onartu zuten Kultur Hiru egitasmoarekin Espaloian kultura ekintzak antolatzeko hitzarmena sinatzea.

ARETXABALETA

Garazi Estebez Ziklista

Uztailaren 15ean jokatu zituzten, Tolosan, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak; lasterketan bigarren izan zen, baina txapela janzteko nahikoa puntu batu zituen Estebezek.



ANTZUOLA

40 kale-argi hondatuta eta argi barik

Antzuolako jaien aurreko asteburuan, elektrizitate-piko handi baten ondorioz, herriko 40 farolen argiteria sistema erre egin zen. "Gertatu daitekeen kalterik handiena izan du elektrizitate sistemak".



OÑATI

Ulma, Bidebarri eta Udala, elkarlanean


Oñatin gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen laneratzeari sustatze aldera, hitzarmena sinatu zuten Oñatiko Udalak, Ulma Fundazioak eta Bidebarri Enplegu Zentroak. Lankidetzeta programa 2018ko uztailearen 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean gauzatu da.



DEBAGOIENA

Deskargako lanak, 2019an amaituta

Markel Olano diputatu nagusia eta Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturako diputatua Deskargako lanak ikusten izan ziren uztailearen 9an. Olanok gogorarazi zuen neguan eguraldiak lagundu ez bazuen ere, lanak amaitzeko epea ez zela luzatu. Gauzak horrela, lanak 2019ko martxoan amaitzea aurreikusten da.



DEBAGOIENA

Denon Artean Saria On Jose Maria Arizmendiari

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak lehenengo Denon Artean Saria banatu zuten uztailearen 5ean, Kurasaalen. *In memoriam*, On Jose Maria Arizmendiari eman zioten. Iñigo Urkullu lehendakariak hartu zuen parte ekitaldian.

BERGARA

Omenaldi oso "hunkigarria" jaso zuen Bandak Iruñean

Begarako Bandari omenaldia egin zioten uztailearen 12an, San Fermin jaietan. 2019an 100 urte beteko dituen Iruñeko Pamplonesaren eskutik iritsi zen omenaldia; bandaren sorrerarako ezinbestekoa izan zen 1918an egindako lehiaketa bateko bergararren ekarpena eskertzeko.



ARRASATE

Maialen Axpe, Europako Txapelketara

Espainiako Txapelketan bigarren sailkatu zen Axpe, baina, gainera, Berlingo-abuztuan-Europako Txapelketarako gutxieneko marka lortu zuen (4,45). Berlinen, berriz, ez zen finalerako sailkatu. Baina abuztu amaieran Perun egin zituzten Iberoamerikako Txapelketan bigarren izan zen arrasatearra.

itesa

Gabon zoriontsuak guztioi!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

ARRASATE**Aitor Fernandez** Atezaina

Azken bi denboraldiak Numantzian egin eta gero, Aitor Fernandez Abarisketak Mediterraneo alderako bidea hartu zuen uztailean, Levantek fitxatu zuen eta.

**BERGARA****Zinema aretoa kartzela zaharrean**

"Euskal Herriko zinema aretorik txikienaren" aurrestreinaldia uztailaren 20an egin zuen Dynamo zineklubak Eyharts taldearen ikuskizun batekin; aretoa bete egin zen estreinaldirako.

BERGARA**Julen Irizar** Ziklista

Euskadi Murias taldeko txirrindulariak Portugalgo Grande Premio N2 txapelketako bigarren etapa irabazi zuen. Ziklista bergarra bakarrik sartu zen helmugan.

**ARETXABAETA****Garikoitz Garcia bisitatu, eta istripua**

Picassenten (Valentzia) dagoen Garikoitz Garcia Arrieta preso aretxabaletarraren bi lagunek istripua izan zuten uztailaren 1ean, Teruel inguruan, hura bisitatetik zetozela. Onik irten ziren biak.

**BERGARA****Garitanoren Realak Bergaran izan zen**

Denboraldi-aurrea prestatzeko partidua izan zen uztailaren 28an Realak eta Osasunak Agorrosinen jokatu zutena. Gainera, herriki-deek bertatik bertara ikusi ahal izan zuten Asier Garitano entrenatzailea; partidu berezia izan zen harendako. Partidu entrenigarrian, Realak 3-2 irabazi zion talde nafarrari.

DEBAGOIENA**'Mondragon' auzian, korporazioari arrazoia**

Bergarako epaitegiak uztailaren 27an eman zuen Ordaindu eta Eskuratu elkarteek korporazioaren aurka bultzatutako auzi eskeari buruzko epaia: atzera bota zuen, oso-osorik. Erabilitako argudio ugarietatik lehenengoa onartu zuen epaitegiak: auzi eskearen preskripzioa. Eta, beraz, ez zuen gainerakoa aztertu behar izan.

Jean Louis David

Zorriouak eta wife beini out!

Ibargarai 48 • 20570 Bergara
943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com

Astelehenetik Ostegunera:
09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30

Ostirala: 09:30 > 18:30

Larunbata: 08:30 > 12:30

Astelehen, Astearte eta Asteazkenetan %20ko eskaintza

Ostegunetan %20ko eskaintza (mutilak)

2018ko Jean Louis David areto onenaren saria

ARRASATE

Labankada bat gertatu zen Garibain

Ertzaintzak jakinarazi zuenez, eztabaida izan zuten bi gizona Garibai hiribidean, eta labanaz eraso zion batek besteari. Ez zen "ezer larririk" izan, erasotua bere kabuz joan baitzen ospitalera.

DEBAGOIENA

Hautagaitza garrantzitsua 'Handia'-k

European Film Awards European zinema munduan ematen diren sari garrantzitsuenetarako hautagai aukeratu zuten Jon Garaño eta Aitor Arregi zuzendarien ikus-entzunezkoa.

DEBAGOIENA

Kup taldearen arrakasta Taiwanen

Rakel Murgiondo, Karlos Etxaniz, Marije Ugalde, Aitor Garitano, Aitor Biain, Gorka Aranburu eta Amaia Igartua Taipei hirian izan ziren abesten, National Concert Hall-en, eta arrakasta handia eduki zuten.

OÑATI

Jose Mari Bengoa Artzaina

Jose Mari Bengoa *Urzabal*-ek hirugarren postua eskuratu zuen Kataluniako Castellar de n'Hug herrian, Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketan.



BERGARA

'Agur, Etxebeste!' filma grabatzen hasi ziren

Aupa Etxebeste! aurkeztu zenetik 14 urte pasa ostean, Etxebeste familia berriz elkartu zen Bergaran, *Agur, Etxebeste!* pelikula grabatzen hasteko. Herriko kaleek ezohiko itxura hartu zuten, eta kameraz bete ziren hainbat astez. Ikusmin handia piztu zuen grabaketak, eta herritar ugari jarraitu zuten gertutik.

OÑATI

'Adio' eskaini zuen Kukaik Arantzazun

Donostiako Musika Hamabostaldiaren baitan, *Adio* emanaldia eskaini zuen, Arantzazuko santutegian, Kukai dantza taldeak, Oñatz dantza taldearen laguntzarekin. Iñaki Beristain eta Bitoriano Gandiaga poetari eta frantziskotarrak izan zituzten gogoan.



ARETXABAETA

Bergarar bat hil zen, motor batek eta auto batek elkar jota

Motor batek eta auto batek elkar jo zuten Aretxabaletako hego lotuneko bidegurutzean. Eskoziatik Aretxabaletara sartze-za zihoan autoa, eta Arrasatetik zetorren motorrarekin talka egin zuen. Motoan zihoan 58 urteko gizon bergararra helikopteroz eraman zuten ospitalera, baina handik gutxira hil zen.

Inork ez daki zaintzen zer bait, sortu duenak baino hobeto

Kontrata itzazu gure Mantentze Zerbitzuak:

- Gas-galdararen urteko azterketa.
- Joan-etorri eta esku-lan guztiak sartuta.
- Eta hemendik aurrera, zure galdarak 15 urte bete arte, jatorrizko pieza guztiak barne.

Sematec Guipúzcoa
Zerbitzu Tekniko Ofiziala
943 76 06 61
www.guipuzcoa.saunierduval.es



Saunier Duval

BERGARA**Sutea izan zen TTT enpresan**

Suak labe bat eta teilatu zati bat kaltetu zituen Bergarako San Juan auzoan dagoen TTT enpresan. Suhiltzaileek ordubetan inguruan itzali zuten sua eta ez zen zauriturik izan.

OÑATI**Corpus dantzak Donostian**

Donostiako Konstituzio plaza jendez goraino bete zen Oñatz dantza taldeak eskaini zituen Oñatiko Corpus dantzak ikusteko. Entsegu bereziak egin zituzten aurrez oñatiarrek, oholtzar horretara egokitzeko.

ANTZUOLA**Eztalarako bide berria ireki zuten**

Futbol zelaira joateko bidean, azpiegitura berriaren azpian, pasabide bat egokitu zuten; orain, nork bere bidea du: oinezkoek zein autoan doazenek. Herritarrek asko eskertu zuten bidearen irekiera.

BERGARA**J. M. Laskurain** Zuzendaria

Jose Miguel Laskurainek Orkestra Zuzendaritzako Munduko Topaketan hartu zuen parte, Huelvan. Azpimarratu zuen "luxua" izan zela topaketa hartan egotea.

**ANTZUOLA****Sardina-jan solidarioa egin zuten, Anelkarren eskutik**

Anelkarrek Kongon eta Senegalen dituen proiektuetarako dirua lortzeko helburua izan zuen sardina-janak. Eguraldi makurra egin zuen arren, herritar ugari batu ziren udaletxe azpian, eta giro ederrean igaro zuten eguerdia. Elkartasun keinu ederra erakutsi zuen Antzuolako herriak orduko hartan.

**DEBAGOIENA****Zenbait debagoiendar izutu zituen lurrikara**

Lurrikara batek Indonesiako Lombok uhartera astindu zuen. Richter eskalan zazpi gradukoa izan zen eta irlaren iparraldean izan zuen epizentroa. Hainbat hildako egon ziren eta zaurituak ere ugari izan ziren. Momentu hartan hainbat debagoiendar zeuden han, oporrak igarotzera joanda. Denak onik irten ziren.

ARETXABALETA**Azbe eraikina botatzen hasi ziren**

Bulegoak zeuden eraikina bakarrik bota zuten, lantegia bera ez. Izan ere, lantegiak arkitektonikoki balio historikoa zuela adierazi zuen Udalak, zerra formadun teilatuagatik. Agintaldi hasierako kontu bat zen, eta eraisketa asko luzatu zen, azkenean.



ekide group
pertsonak ardatz

zorionak eta urte berri on!

Ekide S.L. · Telleria-Kalea-2, Arrasate · www.ekide.es · 943712543

ARETXABALETA

Artemanek 15. urteurrena ospatu zuen

Bezero, hornitzaile eta lagunekin ospatu zuten Arteman komunikazio agentziak 15 urteak. Aretxabaletako MUren Ikus-entzunezko campusean egin zuen ospakizun ekitaldia.

ARRASATE

Rip taldearen ibilbideari errepasoa

Katalunian sortutako *Larga vida a Rip* fanzine-liburua eta diskoa aurkeztu zuten. Testigantzekin osatutako liburua da, eta taldearen 24 bertsio eta berreskuratutako hiru abesti biltzen ditu diskoak.

OÑATI

Xabier Infante igerilari ohia

Aloña Mendiko igerilari ohiek omenaldia egin zioten *Artza*-ri, igeriketa entrenatzaile eta sorosle ohiari, 30 urteko ibilbidearen ostean. 180 pertsona inguru elkartu ziren bazkarian.



ARETXABALETA-ESKORIATZA

Droga kontsumoa izan zuten hizpide

San Juan de Dios ospitaleak eta UDAK elkarlanean sortutako proiektu baten baitan, Eskoriatzan eta Aretxabaletan 13-16 urte arteko gazteen droga kontsumoaren gaineko datuak aurkeztu zituzten.



OÑATI

Txillardegiren omenezko plaka jarri zuten


Maiatzeko osoko bilkuran Oñatiko udalbatzak aho batez onartu ostean, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiren* omenezko plaka jarri zuten Arantzazuko Milikua ostatuan. Hala, Oñatiko Udala izan zen Txillardegiren lana aitortu zuen lehen erakundea. Txillardegik harreman berezia izan zuen Arantzazurekin.



BERGARA-OÑATI

Hiru emanaldi herriko berezi egin zituzten

Kontzertu berezien hilabetea izan zen iraila, eta hiru nabarmendu ziren guztien gainera: San Martin plaza goraino bete zuen Bergararen 750. urteurreneko kontzertua, *Oxigenoa euskarari* 6.000 metroan ere egitasmoaren baitan San Migel parrokian egin zutena eta Ganbara faktoriaren *Euskal mitologia, gure historia* emanaldia.



ANTZUOLA

'Pauso osasuntsua' proiektua saritu zuten

Antzuolako Udalak eta Landa-txope erretiratuen elkarteak elkarlanean sortutako *Pauso osasuntsua* proiektua saritu zuten Eusko Jaurlaritzak, Euskadi Lagunkoia programaren bidez. Proiektu horren helburua nagusia da adineko jendea ibilbide desberdinak egiteko elkartzea urtean zehar.



ELGETA-ESKORIATZA

Arrakasta handia izan zuten 'Gure zirkua'-k Debagoienean

Iker Galartzak eta haren lantaldeak eskaintzen duten *Gure zirkua* ikuskizuna Elgetan eta Eskoriatzan izan zen, eta, sarrera guztiak agortuta, arrakasta handia eduki zuen. Aurreikusi baino emanaldi gehiago eman zituzten, gainera. Galartzak azpimarratu zuen "asko" gozatu zuela emanaldietan.



**GOIKOETXE
HARATEGIA**



Salbador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

ZORIONAK
eta urte berri on!

ELGETA

S. Arantzabal Txirlo jokalaria
 Sebastian Arantzabalek irabazi zuen Bizkaiko hiru txirlo txapelketa, zortzi jardunalditan 46 txirlo jota. Azken jardunaldia Aulestin jokatu zuten, eta bigarren egin zuen elgetarrak.




OÑATI

'Juntalekuak' ekimena aurkeztu zuten
 Mugikortasun Astea baliatuta, Eskolako Bidea egitasmoaren baitan kokatzen den *Juntalekuak* ekimena aurkeztu zuten Oñatiko Udalak eta herriko hiru ikastetxeek, ikastetxera "modu jasangarrian" joateko.

ESKORIAITZA

Gorka Idigoras Auto pilotua
 Gorka Idigorasek Euskal Herriko rallysprint txapelketa irabazi zuen bere kategorian –sailkapen orokorrean seigarren sailkatu zen–. Aramaioko proba ere irabazi egin zuen bere kategorian.



ARRASATE-ELGETA

Alemaniar talde bat Debagoiengan
 Alemaniako mugimendu sozialetako hainbat lagun Arrasaten eta Elgetan izan ziren, Bilboko Baskale kultur elkarteak antolatuta. Hemengo historia eta esperientziak gertutik ezagutu ahal izan zituzten.



ARRASATE

Ishot!u jaialdia, Shot! estudioaren alde

Maiatzaren 11n kiskali zen Arrasateko Shot! estudioa berriro martxan jartzeko ekimenen barruan, jaialdi berezia egin zuten Amaia antzokian. Pablo Novoa eta Keu Agirretxea, Ruper Ordorika, Petti eta Barrenan Semiak, Ines Osinaga, Zea Maysko Aiora eta Piti eta Huntza taldeek eskaini zuten emanaldia.



ARRASATE

Bi arrasatear hil ziren Asparrenan, trafiko istripu batean

Bide bazterrean matxura bat konpontzen geldirik zegoen kamioi baten aurka jo zuten euren autoarekin. Aurrealdean zihozten bi arrasatearrak, emakumezko bat eta gizonezko bat, hilda aurkitu zituzten suhiltzaileek. 70 urte zituzten biek, eta bikotea ziren. Arabako Asparrena herrian gertatu zen ezbeharrak.



BERGARA

Larramendiko eraikin berria inauguratu zuten

7.650 metro koadroko eraikin industrialia eta 765eko bulego-eraikina inauguratu zituzten Bergarako Larramendi industrialdean. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua, eta Alexander Arriola, SPRI Taldeko zuzendari nagusia.

BERGARA

Realaren aurka irabazi zuen etxeko nesken taldeak

Lehenengoz egin zen emakumezkoen Bergara Hiria txapelketa irabazi zuen Bergarako emakumezkoen lehen taldeak, Realaren bigarren taldea penaltietan menderatuta. "Historikotzat" jo zuten garaipen hura bergararrek; izan ere, talde donostiarra "beste galaxia batekoa" zela adierazi zuten.



ARAMAIO

Herriko umeek pozez hartu zuten ur parkearen irekiera

Antzuolako ereduari jarraituz, Aramaion ere ur parkea egitea erabaki zuen Udalak, eta irailean inauguratu zuten. "Gustatuko litzaiguke herrian igerileku bat edukitzea, baina gure baliabideak mugatuak dira. Honen aldeko apustua egin dugu, eta ea, orain, erabilera ona ematen diogun", zioen Lierni Altuna alkateak.



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibagarai ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Zorionak eta wite berri on!

ARETXABALETA

Loramendi Ikastola sortu zela 50 urte

Loramendi Ikastolak 50 urte beteko zituzkeela gogoratzeko, ikastola izan zenaren sustatzaile, bultzatzaile, guraso eta irakasleei omenaldia egin zieten, "garai zailetan" euskararen alde egindakoagatik.

ARRASATE

'Bihurgune 1545' proiektua irabazle

Victor Vazquezek eta Idurre Garciak diseinatutako *Bihurgune 1545* proiektuak irabazi zuen Monterrongo ideia lehiaketa. Parkea herrira zabaltzeko balioko du proiektu horrek.

OÑATI

Jokin Garai Mendi lasterkaria

Duela bi urte garaipena lortu zuen Hiru Handiak lasterketan, eta aurtengo edizioan ere podiumera igotzea lortu zuen, hirugarren sailkatuta, Dominguezen eta Martinezen atzetik.



ELGETA

Erle Eguna egin zuten Elgetan

Bailarako hainbat erlezain izan ziren ezta, propolia, intsusa ukenduak, argizariak eta xaboiak saltzen. Helburua izan zen erakustea "kalitatezko" produktuak egiten direla Debagoienean ere.



ESKORIATZA

Bailarako Eskola Publikoaren jaia egin zuten


Lehenengoz, Debagoieneko Eskola Publikoaren jaia egin zuten Eskoriatzan, *Hezi eta hazi* lelopean. "Eskola euskalduna, inklusiboa eta plurala" dela aldarrikatu zuten. Debagoien osotik gerturatu zen jendea, Eskoriatzako kaleak betez, eta jaiaren balorazio positiboa egin zuten Luis Ezeiza eskolako kideek.



OÑATI

Euskara Batuaren Adierazpena sinatu zuten

Euskara Batuaren Adierazpena sinatu zuten 36 erakundek Arantzazun, duela 50 urte euskara batua sortu zen toki berean. Erakundeak XVII. Biltzarra egin zuen, eta, hiru egunez, euskara batuaren indargunez, ahuleziez eta erronkez jardun zuten euskalgintzako hamaika arlotan lanean diharduten profesionalak.



ARRASATE

Lau hilabetez greban egon ostean, akordioa etxez etxeko langileek

Arrasateko etxez etxeko langileek akordioa lortu zuten Aurrerantz enpresarekin, lau hilabetez greban egon ostean. Hitzarmen "propioa" sinatu zuten, eta "garaipen izugarria" izan zela adierazi, enpresarekin akordioa sinatzeaz gain, Arrasateko Udalarekin ere "konpromiso zehatzak" lortu zituztelako.



BERGARA

UNEDek eraikin berria inauguratu zuen

Urtebeteko birgaitze-lanen ostean ireki zuten berri. Harrizko egitura bakarrik mantendu ahal izan zuten bere horretan. Erabilgarritasuna lehenetsi zuten eta hezkuntza modu berriak aintzat hartuta hornitu zuten eraikina. "Jauzi kualitatibo izugarria izan da, oso aldaketa positiboa", azaldu zuen Iñaki Esparza zuzendariak.

OÑATI

'Hurretik' gala egin zuten, herriko kultur ondarean sakontzeko

Oñatiar izateko sentimenduan eta kultur transmisioaren garrantzian sakontzeko, gala egin zuten Santa Ana antzokian, Potx eta Lotx pailazoen gidaritzapean. Umorez eta dotore gidatu zuten ikuskizuna. Antzokia bete egin zen gala ikusteko, eta herritarrek bat egin zuten pailazoek egindako proposamenarekin.

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.

Zorionak eta urte berri on!

ARRASATE

'Kamarada' lana aurkeztu zuten

Celestino Uriarte miliziano komunistaren bizitza batzen du dokumentalak. *Celestino Uriarte. Klandestinitatea eta erresistentzia komunista* lanean oinarritu zen Intxorta 1937 elkartearen lan hau osatzeko orduan.

OÑATI

Ikusmina piztu zuen 'Lope' filmak

Oñatiko LPM taldeak ekoiztutako *Lope* filmak, Lope de Agirre esploratzaile eta konkistatzaile oñatiarraren bizitza ardatz duenak, ikusmina piztu zuen herritarren artean, eta arrakastaz aurkeztu zuten.

ARRASATE

Eneko Barberena Idazlea

Augustin Zubikarai beka irabazi zuen, *Afrikaners* nobelarekin. Gerra eta legez kanpoko immigrazioa jorratzen ditu lanak, eta hamasei hautagairen artean harena izan zen garaile.



OÑATI-ARRASATE

Oñati-Arrasate lasterketa egin zuten

Lehenengoz Oñati-Arrasate lasterketa egin zuten, AEDk antolatuta, eta garaipen erosoak lortu zituzten Aitor Mimenza elorriarrak eta Marisol Ramos oñatiarrak. 250 lagunek hartu zuten parte.



BERGARA

Bergara, Zientziaren 'Leku Historiko'

Europako Fisika Elkarteak (European Physical Society, EPS) Zientziaren *Leku Historiko* izendatu zuen Bergara herria. Izendapen hau Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaien lanari esker jaso zuen, wolframioa isolatu zuten lehenak izan baitziren herri horretan. Iñigo Urkullu eta Markel Olano izan ziren, besteak beste, Bergaran.



DEBAGOIENA

Rikardo Arregi saria jaso zuen Goienak

Aurten 30 urte bete dituzte Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak. Hori dela eta, euskal kazetaritzaren hamar mugarri saritu zituzten. Goiena Komunikazio Taldea mugarri horietako bat izan zen, epai-mahaiaren iritziz, "lorpenaren eta arrakastaren eredu garbia" delako, eta tokiko kazetaritzan eta komunikazioan "aitzindari aparta".



ARRASATE

Munduko ordezkariak ekonomia sozialaren gainean berbetan

Arrasatek presentzia nabarmena izan zuen Bilbon egin zuten Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroan. Mundu osotik etorritako hainbat ordezkari hemengo eredu kooperatiboa gertutik eza-gutzeko aukera izan zuten, eta Goiena bisitatzen ere izan ziren. Maria Ubarretxena alkateak balorazio positiboa egin zuen.



OÑATI

43 asilo eskatzaile Larrañako harrera zentrora iritsi ziren

Saharaz hegoaldeetik etorritako 43 asilo eskatzaile iritsi ziren Larrañako harrera zentrora. Harrera "hunkigarria" egin zuten herritarrek, eta *Txoriak txori* abestu zuten elkarrekin. Gerora, Herriko Futbol Txapelketarako taldea osatu zuten, Larraña izenarekin, "herrian integratzeko" helburuarekin.



ILE AILE

ILE APAINDEGIA

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

ilea peluqueria/ileapaindegia

Gabon jai zehentzuak guztiei!

DEBAGOIENA

Euskaraldian, 13.500 lagun

"Erantzun ona" izan zuen Euskaraldiak, oro har, eta baita Debagoiengan ere. 13.500 herritar inguruk hartu zuten parte ariketa sozialean, eta, gehienek *ahobizi* rola hartu zuten arren, *belarriprest*-ak ere izan ziren.

DEBAGOIENA

Abbadia Saria, 'Ahotsak.eus'-entzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Ahotsak.eus* proiektuari eman zion 2018ko Anton Abbadia saria, "euskararen ahozko testigantzak sarean jaso eta eskumen librean jartzeagatik".

BERGARA

Musika bandak diskoa kaleratu zuten

Bergarako Musika Bandak apirillean zehar udaletxeko osoko bilkuren aretoan grabatutako *Begarako ereserkia eta elkarteen martxak II* diskoa kaleratu zuten. Bost eurotan jarri zuten salgai.

ARAMAIO

'61,4 kilometro' lana aurkeztu zuten

Aramaioko trikiti eskolak Errezilgo trikiti eskolarekin elkarlanean sortutako *61,4 kilometro* izeneko diskoa aurkeztu zuten. Izena berezia da; izan ere, bi herrien artean dagoen distantzia erakusten du.



DEBAGOIENA

Bi txakurrek hainbat ardi hil zituzten

Ihes egindako bi txakurrek 70 arditik gora hil zituzten Alabita, Degurixa eta Kurtzebarri inguruetan, eta Eskoriatzako alkateak -jabearen onarpenarekin- bi txakurrak hiltzea baimendu zien Al-daipe ehiza elkarteko kideei. Artzainek prentsaurrekoa egin zuten gertatutakoa salatzen. Gerora, txakurretako bat hilda agertu zen.



DEBAGOIENA


Mondragon Taldearen 'soinu banda'

Humanity at Music-Sinfonia Kooperatiboa proiektua aurkeztu zuten Mondragon Taldeko zenbait ordezkarik eta hainbat diziplina artistikotako sortzaileek. Proiektuak begirada artistiko eta berritzaile bat proposatzen du Arrasateko esperientzia kooperatiboari buruz, eta liburu bat eta soinu-banda bat dira emaitza.

DEBAGOIENA

Hainbat eraildako omendu zituzten herri desberdinetan

Batetik, Isaias Carrasco omendu zuen Arrasateko Udalak. Bestetik, Komando Autonomo Antikapitalistako kide Jose Mari Iturrioz *Zapa*, Roberto Aranburu eta Emili Larreari ere egin zioten omenaldia, Arrasaten hau ere. Azkenik, Eskoriatzan, Benito Reola militar errepublikanoa omendu zuten.



ELGETA-BERGARA

Hiru liburu aurkeztu zituzten azaroan Debagoiengan

Manolo Cainzosek *Elgeta lehen eta orain* liburua kaleratu zuen, herriaren sorrera, bilakaera eta ondarea jasotzen dituen; Yon Suinagak *Miguel Madariaga, ametsak errealitate bihurtuz* liburua; Patxi Larrañagak, azkenik, *Abizenak, leinuak eta oinetxeak* liburuaren bigarren zatia aurkeztu zuen.



LEINTZ GATZAGA

Euskal ziklismoaren gaineko erakusketa zabaldu zuten

Kas taldeko masajista izandako Karmelo Uriak ganbaran zeukan materialarekin erakusketa zabaldu zuen Dorletako Ama Txirrindulari Taldeak, Dorleta santutegian. 133 koadroz gain, hainbat txirrindularik ama birjinari utzitako maillotak ere ikusgai jarri zituzten. Martxo bukaera arte irekita egongo da.



autopullmans
Araba



Ondo pasa Gabon jaiak!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

ARRASATE

Arrantzalearen gorpua aurkitu zuten

44 urteko arrantzale arrasatearraren gorpua aurkitu zuten Ondarroako portuan, desagertu eta sei egunera, azaroaren 24an. Izan ere, azaroaren 18an galdu zuten haren arrastoa.

OÑATI

Ruper Ordorika Musikaria

Bakarka diskoa aurkeztu zuen Ruper Ordorika musikari oñatiarrak, eta bere ibilbide osoko hamabi abesti jaso zituen azken lan horretan. Haren esanetan, "asko ibilitako kantuak" dira.



ARRASATE

'Haka' aldarrikatzailea egin zuten

Kirolaren benetako balioez gozatzeko aldarria egin zuten hainbat neska-mutilek, Biteri plazan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Eee!ntzun* deritzon ekimenaren lehen geldialdia izan zen Arrasatekoa.

ARRASATE

Ouka, Gipuzkoako dendarik onena

Ouka arropa dendak jaso zuen Gipuzkoako Merkataritza Ganberak emandako lurraldeko merkataritza enpresa onenaren sari nagusia. Bergarako Igarok, ostera, lurri denda onenaren saria jaso zuen.



DEBAGOIENA

Hainbat ekintza egin zituzten indarkeria matxista salatzeke

Azaroaren 25ean, Debagoieneko herrietan mobilizazio ezberdinak egin zituzten indarkeria matxistaren aurka. Bergaran, esaterako, performance berezi bat egin zuten. Oñatin, bestalde, tulipanak landatu zituzten. Arrasaten manifestazio jendetsua egin zuten *Justizia patriarkalaren kontra, gu gara manada* lelopean.



ARETXABALETA

Aitor Sarasua Maritxalar bertsolaria hil zen

Bertsolaria, bertso eskolako irakaslea, eragilea, gai-jartzailea, eta abar izan zen. Almen ikastolako bertso-eskola aitzindarian hasi zen bertsotan, 7 urte ingururekin, Jon anaiaren eta lagunaren artean. Aspaldian Itsasun bizi zen (Lapurdi), eta gaixotasun luze baten ondorioz hil zen, 51 urterekin.



OÑATI

Igor Zubeldia Txantxiku Txuriurdinekin

Txantxiku Txuriurdinak taldeko aita ponteko izendatu zuten Igor Zubeldia Realeko jokalarari azkoitiarra. Oñatiko gaztelekuan egin zuten aurkezpena. Taldeko kideei eskerrak eman nahi izan zizkien Zubeldiak bera aukeratu izanagatik. "Babes hau edukitzea oso positiboa da niretzat". Oñatin, gainera, familia dauka Zubeldiak.

OÑATI

Mendeurreneko kongresua Oñatin borobildu zuten

Geroa Elkar-Ekin kongresuaren azken saioa Oñatin egin zuen Eusko Ikaskuntzak, eta Liburu Zuriaren oinarriak ere aurkeztu zituzten, "Euskal Herriaren etorkizuna hobetzen" lagunduko dutenak, haien esanetan. Besteak beste, Oñatin izan ziren Jean Rene Etxegarai, Uxue Barkos eta Iñigo Urkullu.





Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela




Gabon zoriontsuak eta urte berri on guztioi!

KALEBARREN 5
943 76 62 90
ANTZUOLA

ARRASATE

'Hamaika amaren seme (alaba)' lana

Ehun urteotako euskal gizartearen ikuspegi ezohikoa jaso gura izan du Doke antzerki taldeak azken lanean. Hala, abenduaren 2an emanaldia egin zuten Arrasaten, eta hilaren 16an Aramaion.

DEBAGOIENA

Berrikuntzak ikastetxeetan

Bergaran, proiektu pedagogikora egokitutako espazio zabalen aldeko apustua egin zuen Aranzadi Ikastolak. Oñatin, berriz, Urgain eskolako soto eraberritua aurkeztu zuten jendaurrean.

OÑATI

Jesus Odriozola Harakina

Euskal Herriko 21. Txistor Lehiaketa egin zuten hilaren 19an, Ordizian, eta Oñatiko Jesus Odriozola harategiak eraman zuen txapela. Guztira, 42 ekoizle aurkeztu ziren.



BERGARA

Industriaren gaineko lana

Gipuzkoako Foru Aldundia egiten ari den *Gipuzkoan eginak* ikus-entzunezko sailaren seigarren kapitulua Bergarari buruzkoa da, eta Seminarixoa aurkeztu zuten lana.



DEBAGOIENA

107 tona elikagai batu zituzten Bergaran

Gipuzkoako elikagai bankuek azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean egin zuten Bilketa Handia, eta Gipuzkoa osoan 650 tona elikagai batu zituzten, horietatik 107 Bergarako bankuan. "Orokorrean aztertuta, iazko kopuru antzekoa batu dugu", azaldu zuen Jose Antonio Agirrebeñak, Bergarako elikagai bankuko arduradunak.



OÑATI

Kirol argazki onenaren saria, Oñatira

Felix Sanchez oñatiarraren *Bedeinkazioa* izeneko argazkiak irabazi zuen Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkarteak (IAAF) ematen duen argazki onenaren saria. Monakon jaso zuen saria. "Sekulakoa izan da. Zure izena galan entzutea, zeuk egindakoa pantaila handian ikustea... Ez dut sekula ere ahaztuko", adierazi zuen.

ESKORIATZA

Angel Bañaresen agurra, txalo zaparrada artean

Manuel Muñoz kiroldegia lepo bete zen, hilaren 15ean, Angel Bañares (Castañares, 1944) agurtzeko. Musikari lotuta beti, 21 urte zituela etorri zen Eskoriatzara, eta musika bandaren zuzendari izan da 35 urtez. Beheko Errota musika eskolan irakasle lanetan ere ibili zen urteetan.



OÑATI

Anastasio Zubiaren gaineko liburua aurkeztu zuten

Anastasio Zubia araoztar sal-tzaile ibiltariaren historia eta pasadizoak liburu batean jaso dituzte –duela 35 urte hil zen–. Eta abenduaren 15ean aurkeztu zuten liburua Migel Anjel Kortabarria eta Jose Antonio Azpiazu egileek. Araozko saloia bete egin zen, eta liburua hamar eurotan dago salgai.



DEBAGOIENA

Euskaraldiaren barruan, hainbat ekintza

Euskararen Egunaren eta Euskaraldiaren baitan ekimen mor-doa izan zen. Aretxabaletan, Antzuolan eta Arrasaten, esaterako, abenduaren 3an bertan *flashmob*-a egin zuten. Bergaran *ahobizi*-en eta *belarriprest*-en igoera egin zuten. Elgetankantuan ibili ziren eta Oñatin Euskararen Kriseilua ekimena egin zuten.



• Ibargarai 24

Tel.: 943 76 70 29

• Super Amaran ere bai:

San Lorentzo pol. 9

Amillaga 18

Tel.: 943 76 99 34

BERGARA

Zorionak eta urte berri on!



ARETXABALETA**Kepa Errasti** Aktorea

Kepa Errastiren *Lur* antzezanak jaso zuen 36. Euskal Antzerki Topaketen ikusleen saria: "Lana ikusleengana iritsi den seinale da hau", adierazi zuen Errastik.

**ARRASATE****Akordeoi txapelketa, Italiara**

Samuele Telari italiarrak irabazi zuen Arrasate Hiria nazioarteko 26. akordeoi txapelketa. Gipuzkoako Txapelketan, berriz, nagusien kategorian Marta Cubas izan zen onena.

ARRASATE**Vicente Atxa** MUKO errektore

Abenduaren 10ean egindako batzarrean, Mondragon Unibertsitateko kontseilu errektoreak aho batez izendatu zuen errektore Vicente Atxa beste lau urterako.

**OÑATI****Fagor marka erabiltzeko baimena**

Fagor Kooperatiba Elkarteak, marka barruan aritzen diren kooperatibak batzen dituen, akordioa egin zuen Amica poloniarrekin, marka komertzializatzeko. Era berean, CNA taldearekin ere lortu zuen akordioa.

**ARRASATE****Memoria adostu eta partekatu baterantz**


Udaleko Memoria eta Bizikidetzeta Mahaia eta Argitzuz elkarteak *Arrasate 1956-2018 Memoria partekatu baterantz* liburua aurkeztu zuten Kulturaten. ETAK zein BVEK eraildakoen senideak, preso ohiak, tortura kasuak salatutakoak... batu ziren. Presoen sakabaketa politika amaitzea ere eskatu zuen Mahai horrek.

ARRASATE**12.500 euroko bi txeke, radarretako isunetatik**

2017ko abenduan hasi ziren martxan Arrasateko hiru radarrak. Orditik 2018ko abendura –urtebetean–, 1.447 isun jarri dira, harra-paketek eta kexek behera egin dute, orokorrean, eta isun horietatik batutako diru kopurutik 12.500 euroko txeke bana eman zieten DYA eta Gurutze Gorria elkartei.

OÑATI**'Arrikruz' liburua aurkeztu zuten Santa Anan**

Iñaki Zubeldiak eta Jesus Manuel Marotok haitzuloan galduta zeudela aurkitu zuten lehoia. Orditik, 52 urte pasatu dira, eta orain, Arrikruzeko lehoiari buruzko liburua argitaratu dute. Hala, abenduaren 11n egin zuten, Oñatiko Santa Ana antzokian, *Arrikruz* izena jarri dioten liburua-
ren aurkezpena.

**DEBAGOIENA****Debagoieneko sortzaileak Durangoko Azokan**

Izan eleberririk, filmak, DVDak, ipuinak, musika produktuak zein ikus-entzunezkoak, Debagoienarekin lotura zuzena duten 30 produktu baino gehiago egon ziren Durangoko Azokan irakurtzeko, entzuteko edo ikusteko. Orokorrean, berriz, 158 argitaletxe, diskoe-txe, kultur elkarte, erakunde eta banatzaile egon ziren Azokan.

MUJIKA HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Jai Zoriontsuak!

Virginia Imaz

Berdintasuna umoretik, 30 urtez

Hiru hamarkada luzez agertokiz agertoki ibili izana saritu diote aurten Virginia Imazi (Donostia, 1962), bizitza erdia Bergara eta Antzuola artean egin duen *clown*-ari. Berdintasunaren aldeko 2017ko Emakunde Saria jaso zuen 2018ko apirilean; emakumeen eta gizonen berdintasunik eza ikustarazteko egindako lana, eta "kontzientzia feminista" duen ipuin kontalari eta pailazo bezala egindako "ibilbide luzea eta ausarta" saritu zituen epaimahaiak. "Hunkituta" jaso zuen aitortza: "Sekulako errekonozimendua da, bide onetik noala erakusten du". Duela 30 urte *clown* mundua ere oso gizonezkoa zela dio Imazek, besteak beste, *Puntua*-n egindako elkarrizketan: "Hasi nintzenean, *puta* ere deitu zidaten".



Miriam Urkia, euskaltzain oso

Otsailaren 23an izendatu zuten Miriam Urkia aretxabaletarra euskaltzain oso eta ordutik Joan Mari Torrealdei euskaltzain emerituaren lekua betetzen dihardu.



Alicia Gomez

Ingeniari ona, zuzendari onena

Durargon bizi den Alicia Gomez arrasatearrak Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartearen saria jaso zuen udaberrian, zuzendari onenaren kategorian. DMP eta Zehatz enpresen fusiotik jaiotako eta gaur egun beste hainbat enpresak osatzen duten Egile Taldea zuzentzen du Gomezek, ibilbide profesional ezin oparoago baten azken urrats modura. Enpresa baten kudeaketarako ezinbesteko diren bi osagaien arteko ezkontza ezin hobeto zuzendu izanagatik jaso zuen saria Gomezek: langile kopurua eta modu eraginkorrean lan egiteko sistemak. "Pertsonarik gabe ez gara ezer, baina enpresa bat hutsetik abiatzerakoan asko ikasten da bigarren aspektu horri dagokionez", dio. Aitortza ez zuen espero eta, gutxienez, norabidea egokia dela esateko balio duela deritzo: "Urte asko daramatzat lanean, beti gauzak ahalik eta ondoen egiteko gogoarekin. Askotan, beherakada emozionalak izaten ditugu, ez dakigulako gure ahaleginek etekina izango duten, edo noranzko onean goazen. Baina horrelako aitortza batek bide onetik goazela ikusteko balio du".

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolezio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK

Zaila da aurtengoa Mikel Linazisororen (Bergara, 2000) urtea izan den zehaztea, eskalatzaile bergararrak ez duelako oraindik goia jo. Baina aurtengo izen propioetako bat denik ezin da ukatu, eskalatzaile batek urte berean nekez izaten duelako munduko eskalada txapelketa batean edota Gazteen Olinpiar Jokoetan lehiatzeko aukera izaten. 2018a ezin emankorragoa izan da Linazisororentzat: Europako zailtasun txapelketan urrea jantzi du, 20 urtez azpiko Europako Txapelketan txapeldunorde izan da eta Innsbrucken jokaturako kategorian absolutuko Europako Txapelketan lehiatu da.

Maialen Axpe eta Asier Garitano

Kirolari indibidualekin jarraituz, Maialen Axpe atleta arrasatearrak Europako txapelketako finalaren atarian geratu zen, 4,35 metroko jauziarekin. Bestalde, Asier Garitano bergararra, Realeko entrenatzaile kargutik kendu dute azkenengo partiduetako emaitza txarren ondorioz.



Mikel Linazisoro

Gorantz etengabe, goia jo barik



Kepa Errasti

Antzezle, zuzendari eta eragile

Aretxarteren Gabonetako kanpainan *Puigdemont* gisa ikustea izango da askok Kepa Errastirekin duten azken oroitzapena. Baina 2018a askoz gehiago izan da antzezle, idazle eta zuzendari aretxabaletarrentzat. XVIII. Donostia antzerki saria jaso zuen *Mami Lebrun* amama hil ostean estreinatzeak suposatu zion "biluzte emozionala" dago. Bestetik, *Erlauntza*-ren arrakasta itzela izan zen -Errastirena da testua-, *Txarriboda* ezin da ahaztu eta *Lur* ere aurtengo uztaren parte da. Transexualitatearen gaia maisuki lantzen du obrak; gainera, Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetako ikusleen saria irabazi zuen.

Iñaki Bengoa, nahigabeko protagonista

Anita Parker-engatik baino gehiago, Iñaki Bengoa ezbehar bategatik izan da izen propioa aurtun. Maiatzaren 11n suak irentsi ostean, Arrasateko Shot! estudioa martxan jartzeko antidotoa elkartasuna izan da. *iSHOT!u* jaialdirako Amaia antzokia bete egin zen irailaren 23an; hurrengoa Arrasateko kiroldegian izango da, urtarrilaren 5ean.

Goizperrek gabon jai zoriontsuak
opa dizkizue guztioi



Urte berri on!
2019

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Ihiztadura · Industria · Bioteknologia

Gertakari ugari izan da 2018koa. Askotarikoak izan dira gaurkotasuneko gaiak, baina, bereziki, epaitegiei eta bertan gertatzen zenari begira egon dira herritarrak. Bailaran, *Mondragon* auziak oihartzuna izan zuen, baina baita *La Manada* auziko eta Altsasuko gazteen epaiketak ere.

Nazioartean gertatutakoari, bestalde, buelta bat eman dio Euskadi Irratian nazioarteko kontuak lantzen dituen Juanjo San Sebastian arrasatearrak: "Urte honetan, kontraesanak diruditen bi fenomeno nagusitu dira: alde batetik, emakumeek indartu egin dituzte euren aldarrikapenak, agerian utzi dute zeresana badutela gizateriak dituen erronkei aurre egiteko. Baina, era berean, *gizon indartsuen* boterea eta eragina areagotu egin da. Donald Trump, Jair Bolsonaro, Vladimir Putin, Xi Jinping, Erdogan Turkian, Viktor Orban Hungarian... Ar nagusi eta indartsuaren beharra erabaki zuzenak hartzeko... Eta honen guztionen ondoan, milaka eta milaka gizon eta emakume lurhobearen bila, Mediterraneoan itota, Libiara itzulita, Mexikoren eta AEBen arteko mugan armadaren mehatxupean...".

"Eta kontu izugarriak, Saudi Arabiako printzeak, Mendebaldearen aliatu estuenak, bere aurka azaldu den kazetaria torturatu eta hiltzeko agindua eman du. Munduko herrialde boteretsueneko presidentek dio klima aldaketa ezkertiarrek asmatutako gezurra dela. Bestalde, Europar erabat nahastuta, *Brexit*-a nola bideratu ez dakigulako, eskuin muturrak gero eta eragin handiagoa duelako, ohiko alderdiak galduta daudelako, edo krisiak uste baino min handiagoa

Epaiketak, epaileak eta epai polemikoak

2018an emakumeek, Martxoaren 8ko greban, eta pentsiodunek bete dituzte ibarreko eta Euskal Herriko kaleak. Epaitegiei begira, gainera, titular ugari bildu dituzte Altsasuko gazteen, 'La Manada'-ren eta 'Mondragon' auziek / **Josu Bilbao**

egin digulako", aipatu du arrasatearrak.

Mondragon Auzia

Maiatzean egin zen Ordaindu eta Eskuratu elkarteek Mondragon korporazioaren aurka jarritako demandaren ahozko bista Bergarako epaitegian. Epaileak lekuko moduan joan zirenen testigantzak entzun zituen, eta uztaileko azken astean eman zuen epaia. Hain zuzen ere, Angela Rodriguez-Monsalve epaileak auzi eskearen preskripzioari heldu zion, eta, beraz, ez zuen gainerakoa, ahozko bistan bi elkarteek aurkeztutako argudioak, aztertu behar izan. Epai-

ARRAZOIA EMAN DIOTE MONDRAGONI, AUZI ESKEAREN PRESKRIBZIOARI HELDUTA

leak atzera bota zuen oso-osorik auzi eskea, eta auzi jartzaileen asmo guztietatik absolbitu zuen Mondragon.

Korporazioari arrazoia eman zion epaileak, baina Fagor Etxetresnetako bazkide ohiek osatzen dituzten elkarteek helegitea aurkeztuko dutela baieztatu dute.

Epaiketei begira

Oihartzun handia izan duten bi epaiketari begira egon da euskal gizartea 2018an zehar.

Alde batetik, *La Manada* auzia. 2016ko sanferminetan neska bat talde eraso bidez bortxatu zuten taldekideak epaitu zituzten uda aurretik, eta Nafarroako Auzitegiak emandako epaiak haserre galanta eta manifestazio jendetsuak eragin zituen Euskal Herrian, eta baita estatu mailan ere. Izan ere, bakoitzari 9 urteko espetxe-zigorra ezarri zitzaion. Epaiak ez zuen eraso sexu erasotzat jo, eta, hortaz, ezta bortxaketatzat ere.

Bestetik, Altsasuko gazteen auziak ere zalaparta sortu zuen, ekainean. Izan ere, Auzitegi Nazionalak 2 eta 13 urte bitarteko zigorra ezarri die gazteei, Altsasun gertatutako liskarreatatik. Fiskaltzak ez bezala, Auzitegiak ez zuen terrorismo zantzurik ikusi gertakarietan, baina zigor handiak ezarri dizkie gazteei.

Gobernu aldaketa

Lehen aldiz Espainiako historian zentsura-mozio batek aurrera egin zuen 2018ko ekainaren leian, eta Mariano Rajoyren lekukoa hartu zuen Pedro Sanchezek. Gobernu aldaketarako, EAJ eta EH Bildu euskal alderdiaren eta

EMAKUMEEK MARTXOAREN 8AN ETA PENTSIODUNEK ALDARRIKAPENEZ BETE DITUZTE KALEAK

koalizioaren aldeko botoak izan zituen Sanchezek, besteak beste.

Gertutik bizi izan zuen Madridik gobernu aldaketa hura Maialen Arratibel kazetari arrasatearrak: "Urte amaitzeaz batera, urtea beteko da Madrilerira iritsi nintzenetik, maleta bete ilusio eta beldur. Eta, pentsatzen jarrita, hainbeste eman du 2018ak, eta horrenbeste kendu... Horrela, bat-batean, presidente bat bota, eta beste bat jarri. Presidente hura, Mariano, Moncloatik bota zutenean, ezagun zaigun bere alderdian ere beste Mariano bat behar zuten. Gazteago bat. Eta nor eta Pablo deitzen den tipo bat aukeratu zuten. Albert ezagutzen duzue? Ba, bere oso laguna da Pablo. Egun hartan, pentsatu nuen, gureak egin du. Tipo honek emakumeak, euskaldunak, homosexualak, etorkinak, pobreak -ordenak berdin dio-... ito nahi ditu, harro eta lotsarik gabe. Den-dena, Espainiaren izenean. Baina urtea bukatzearen ondoan, iritsi da Santi(ago). Hau ere, Pablaren eta Alberten oso laguna. Honek Espainiaren izenean Franco bera ere esnatuko luke. Hori guztia kontatu behar izan dugu aurten, bai. Baina baita, zoritxarrez, Altsasuko Adur, Jokin, Oihan, Iñaki, Jon Ander, Julen, Aratz eta Ainarrari 2 eta 13 urte arteko zigorrak ezarri dizkietela. Urte berrirako erronkak bilatzea ohitura bihurtu zaigu, baina ez naiz ni nor, eskuak lotu nahi dizkigun horren aurka zer egin behar den esateko. Formula magikorik existituko balitz...".

Aldarriak, kalean

Mobilizazioak eta manifestazioak ugari izan dira 2018an ere, baina bi indar nagusitu dira Euskal Herriko eta baita bailarako ka-

Uarkape
HORTZ KLINIKA CLINICA DENTAL

RPS: 294/13

- Odontologia orokorra
- Endodontziak
- Implantologia protesiak

Zorionak eta urte berri on!



Mondragon auziaren une bat. Ezkerrean, Ordaindu eta Eskuratu elkarteetako abokatuak eta eskuman, Mondragonen defentsako abokatuak. JAGOBA DOMINGO

URTEKO GERTAERA NAGUSIAK

'Mondragon' auzia

Ordaindu eta Eskuratu elkarteek korporazioaren aurka jarritako demandan, justiziak arrazioa eman dio Mondragoni.

Euskaraldia

Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala egin zen 11 egunetan.

'Leku historiko'

Bergara Zientziaren *Leku historiko* izendatu du Europako Zientzia Elkarreak.

Emakumeak, grebara

Martxoaren 8an bailarako plazak emakumez bete zituzten greba egin zuten hainbat emakumek.

Emakunde Saria

Virginia Imaz *clown* eta aktore antzuolarrak jaso du.

Harrera zentroa Oñatin

Errefuxiatu eta asilo eskatzaileendako aterpetxea ireki dute.

Mendeurrenak

Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak 100 urteak ospatu dituzte Oñatin.

Rikardo Arregi Saria

Goiena Komunikazioa Taldeak euskal kazetaritzan mugarría izanagatik jaso du saria.



Emakumeek Arrasateko plaza lepo bete zuten Martxoaren 8an. GOIENA

E elay

**GABON ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON!**

ELAY Taldea – Lizarragako Hiribidea, z/g – 20577 Antzuola (Gipuzkoa) – Tel.: 943 76 61 00 – Faxa: 943 76 62 62 – www.elay.eus



Apirileko uholdeek Antzuolako Torresoroa hondatu zuten. J.B.

leetan ere. Alde batetik, emakumeek greben eta elkarretaratzeen bidez kaleak hartu zituzten Martxoaren 8an.

Bestalde, estatu osoan pentsiodunen aldarria ozen entzun den arren, Euskal Herrian izan dute presentzia nabarmenena euren mobilizazioek. Debagoienean ere, astero batu dira, "pentsio duinak" eskatzeko helburuarekin.

Urteurren bereziak bailaran

Urteurren borobilak ospatu dituzte aurten, Oñatin, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak. Eusko Ikaskuntzak mendeurrena ospatu du azaro bukaeran. 1918an sortu zen, Oñatin, eta ehungarren urteurrena ere Debagoieneko herri berean ospatu zuten. Horrez gain, 1919an sortu zen Euskaltzaindia akademiak

ere mendeurrena eta Euskara Batuaren 50. urteurrena ospatzen hasi da 2018 bukaeran, Oñatin bertan.

Euskaltzaindiak, gainera, Miriam Urkia aretxabaletarra euskaltzain oso izendatu zuen otsailean, eta ohorezko euskaltzain izendatu dituzte aurten Pello Zabala Arantzazuko frantziskotarra eta Sabin Salaberri

musikari eta irrati esatari aramaiorra.

Bergarak, bestalde, 750. urteurrena ospatu du 2018an, eta, horrez gain, Europako Fisika Elkartek Zientziaren *Leku historiko* izendatu zuen urrian, wolframaren aurkikuntza dela eta. Gainera, iaz, 75 urteurrena ospatu zuen Pol-Pol mendi elkartek, eta aurtan, Miguel Angel Elkoroberezi-barrek Bergarako elkartearen historia batu du liburu batean.

Sariak

Berdintasunaren aldeko 2017ko Emakunde Saria jaso zuen apirilean Virginia Imaz antzuolarrak. Emakunde Sariko epaimahaiak "emakumeen eta gizonen berdintasunik eza ikusarazteko egindako lana eta kontzientzia feminista duen ipuin kontalari eta pailazo bezala egindako ibilbide

luzea eta ausarta" dela-eta saritu zuen antzuolarra.

Gainera, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan, azken 50 urteetan euskarazko kazetaritzaren izandako hamar mugarri saritu dituzte, eta, tartean, Goiena Komunikazio Taldea. "Lorpenaren eta arrakastaren eredu garbia dugu Goiena, tokiko kazetaritzan eta komunikazioan aitzindari aparta", azaldu zuen epaimahaiak.

Errefuxiatuak, Oñatin

Asilo eskatzaileak eta errefuxiatuak hartzeko aterpetxea ireki zuten irail bukaeran Oñatiko Larraña auzoan. CEAR-ek kudeatzen du zentroa, Oñatiko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, eta dagoeneko Oñatin daude edo bertatik igaro dira aurreneko erabiltzaileak.

Uholdeak

Apiril bukaerako euriteek kalteak eragin zituzten Bergaran eta Antzuolan, batez ere. Ur-jasa handia izan zen ordu gutxian; besteak beste, Antzuolako Torresoroa kultur etxea eta Bergarako Urteaga kaleko hainbat garaje hondatuta gelditu ziren.

ERREFUXIATUAK ETA ASILO ESKATZAILEAK HARTZEKO ATERPETXEA IREKI DUTE OÑATIN

Bergara ●
metagra
 México ● Group

Gabon zorientsuak eta urte berri on!



Debagoieneko enpresendako, tartean Eroskirendako, hazkunde urtea izan da honakoa.

Hazkundera gertuan, kezka nazioartean

2018a hazkunde urtea izan da Debagoiengan eta horrek lanpostuak sortzea ekarri du. Gainera, bailarako enpresa nagusiak indarturik atera dira nazioarteko lehian. Urteak aurrera egin ahala, baina, zalantza nagusitu da nazioarteko merkatuetan / **Miren Arregi**

Ez da erraza izaten urtea amaitu aurretik amaitze dagoenak eman dituen datu makroekonomikoak ezagutzeko. Behin-behinekoekin jokatu beharra dago, eta gaur arte esku artean ditugun errepertorio gero, baikortasunerako hainbat zantzu aurkituko ditugu; ez da, ordea, dena ona. 2018a ez da txarra izan euskal ekonomiarentzat. BPGk gora egin du, nahiz eta aurreko urteekin parekatuz zerbait jaitsi den igoeraren abiadura. Adierazle nagusiak aztertuz gero, Eustatek argitaratutako datuen arabera, BPGren hazkunde %2,6koa izan da EAEn 2018ko hirugarren hiruhilekoan. Eusko Jaurlaritzak urtea %2,8ko hazkundearekin amaitzea espero du, eta Nafarroako Gobernuak iragarri berri du bere lurraldeak %3,3rekin amaituko duela. Datuak horiek izanik ere, hazkunde horren amaieran egon gaitzkeela diote adituek:

"Euskal Herrian ere, mendealde osoan bezala, krisiaren osteko berrindartze prozesua bizi izan dugu, baina, itxuraz, berrindartze horren azken urtean egon gaitzke", dio Ekai Center Taldeko presidente Adrian Zelaiak. Barne Produktu Gordinen hazkundearekin batera enpleguaren bilakera positiboa ere azpimarratzekoa da; betiere, krisiaren aurreko egoeratik oso urrun oraindik. Kontrara, OCDEk neke zantzuak azpimarratzen ditu Estatuko ekonomian eta horrek, seguruenek, eragina izango du gurean ere.

Laboral Kutxaren iragarpena

Laboral Kutxak, bestalde, EAEn, BPGren %2,8ko igoera espero du 2018rako eta %2,4koa 2019rako. Nafarroarako, berriz, %3,2 eta %2,8. Hazkunde sektoreka begiratzen badugu, eraikuntza (%4,8) eta zerbitzuak (%2,7) dira tira egin dutenak EAEn, Industria %1,9an geratu da eta lehen sektoreak desazkunde esanguratsua izan du (-%4,6). Nafarroan industria da puntan dagoena %4,1eko tasekin, neurri handi batean, esportazioei esker.

Ekai Centerko presidentek nabarmendu ditu, gainera, euskal ekonomian balio erantsiaren aldetik gertatzen ari diren atzerapausoak: "Gero eta pisu handiagoa dutelako balio erantsi baxuko zerbitzuek -turismoak eta ostalaritzak-".

Hazkunde Debagoiengan

Oro har, 2018a urte ona izan da Debagoieneko enpresen jardunari dagokionez. Enpresagintza Fakultateko Lander Belokiren ustez, 2018a "hazkuntza urtea izan da eta lanpostuak sortu dira; bailarako enpresa nagusiek nazioarteko lehian euren posizioak indartu dituzte eta berrikuntzara

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Ondo pasa Gabon jaiak!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com





eta formakuntzara bideratzen diren esfortzuak azpimarragarriak dira. Ekonomiaren bilakaera ona izan da Euskal Herrian eta horrek lanpostu berriak sortzen lagundu du". Hori berretsi du Belokik.

Lanpostuak sortu dira

Zer eragin izan du hazkunde horrek enpleguan? INEk (Espainiako Estatistika Institutua) eman dituen datuen arabera, langabezia-tasa %9,42 izan da EAEn. %9,12 emakumeen kasuan eta %9,68 gizonezkoenean. Nafarroan, berriz, %9,65ean dago datua, %8,05 gizonezkoen artean eta %11,48 emakumeen artean. Poliki, Euroguneko datuetara hurbiltzen ari gara langabeziari dagokionez, %8,1koa baita esparru horretan, baina OCDEkotik urrutigaude oraindik: %5,2. Debagoieneko langabezia-tasak, bestalde, %8,3koa izaten jarraitzen du. Bestetik, egungo modelo ekonomikoak ez ditu lanpostuak bermatzen lana behar duten guztientzat, eta hori oso seinale txarra da. Emakumeek, orokorrean, zailtasun gehiago dituzte lan merkatuan sartu ahal izateko eta formakuntza pertsonalarekin lotutako lanpostuak eskuratzeko.

Nazioartean, zalantzakor

Munduko ekonomiak dezelerazioa izango du 2019an. "Kezkatzeko fenomeno bat da; izan ere, langileei, enpresei eta sektore publikoari eragingo die zuzenean", Mari Carmen Gallastegi ekonomialariaren esanetan. Haren ustez, "2018a etsigarria izan da. Hainbat arazo detektatu dira. Europa iraunarazi eta indartzeko borrokan ari da; Kataluniaren eta Estatuaren arteko arazoak konponbide barik jarraitzen du eta sentsazio orokorrak ezkorra

KURTEKO GERTAERA NAGUSIAK

BPG, gora

EAEko Barne Produktu Gordinak gora egin du, nahiz eta aurreko urteekin konparatuz jaitsi egin den igoeraren abiadura.

Enplegua, gora

Ekonomiaren bilakaera ona izan da Euskal Herrian eta horrek lanpostu berriak sortzen lagundu du.

Hazkundera Debagoienean

Hazkuntza urtea izan da, eta Debagoieneko enpresek posizioak indartu dituzte nazioarteko lehian.

Nazioartean, zalantzakor

Zalantza nagusi bilakatu da nazioartean. AEBek ipinitako mugek, gerra komertzialak... eragina izan dute. 2019rako ekonomiaren dezelerazioa espero da.

'Brexit'-aren urtea

Brexit-aren gaineko negoziazio zailek eragin handia izan dute, bereziki, Erresuma Batuan.

Pentsiodunak, borrokan

Pentsiodunek borrokan eman dute urtea. Espainiako aurrekontuek %0,25 igo dute soldata, baina ez da, inolaz ere, nahikoa.



Emakumea, lanean.

izaten jarraitzen du". Horren erantzule da, baita ere, hazkunderaren moteltzea. "Hazkunde erritmoa moteltzen hasi da, oso modu nabarmenean. Bestalde, finantza sistemaren desorekek geroz eta kezka handiagoak sortzen dituzte eragile ekonomikoaren artean". Izan ere, Ekai Centerko presidente Adrian Zelaiaren ustez, "gain-zorpetze mailaren ondorioz, hazkunde erritmo indartsuak denbora luzez mantentzea ez da erraza". Nazioarteko Diru Funtzak (FMI) ekonomiaren moteltzea iragarri du; 2018ko eta 2019rako ekonomia proiektzioetan hazkunde globala %3,7an utzi du. OCDEk iragarri du Barne Produktu Gordinak orain arte izan duen aurreraldiak goia jo duela. Honela azaldu du Enpresagintzako dekano Lander Belokik: "Aurreikuspen ekonomikoek zalantza handiekin hitz egiten

dute datorren urteari buruz. Ekonomiaren hazkundera moteldu egingo dela adierazten dute, eta hori berri txarra litzateke. Enpresen emaitzak okertuko dira eta enplegu sorkuntza motelduko litzateke".

HAZKUNDE URTEA IZAN DA AURTENGOA; DEBAGOIENEN ENPRESEK POSIZIOAK INDARTU DITUZTE

MUNDUKO EKONOMIA DEZELERATZEN ARI DA, ETA LANGILEEI ETA ENPRESEI ERAGINGO DIE

Nazioartean jarraituz, Belokik dio 2018a aurrera joan den heinean zalantza nagusi bihurtu dela. "Nazioarteko merkataritzari mugak jarri dizkiote Ameriketako Estatu Batuek eta horrek kezka eta ziurgabetasuna sortu du merkatuetan". Ekai Centerko presidente Adrian Zelaiak erantsi dio nazioarte mailan orain arteko estatusa kolokan jarri dela: "Itxura guztien arabera, ezer ez da berdina izango hementik aurrera nazioarteko merkataritzan eta ekonomian. Globalizazioaren amaieraren hasieran egon gaitezke". Eta gehitu du: "Nazioartean, globalizazioaren aurkako mugimenduak azpimarra daitezke, alde batetik, nazioarteko merkataritzan; herrialde gorakorren etengabeko indartzearen aldetik dolarraren hegemoniaren aurkako mugimenduen aldetik ere berdin".



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

**Gabon zorientsuak
bergarar guztioi!**

Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

AEBetako ekonomiak oso egoera ona bizi izan du 2018an. Hala ere, Zelaiaren ustez, "geroz eta estuago dabil jokatzeko Ameriketako Estatu Batuetako Erreserba Federala; eta nazioarteko merkataritzan, *Amerika First* delakoari lehentasuna ematearen ondorioak datozen urteetan ezagutuko dira".

'Brexit'-aren urtea

Europara etorrita, *Brexit*-aren gaineko negoziazio zailek eragin handia izan dute, bereziki, Erresuma Batuan. "Ziurgabetasun handia sortzen ari da. Hamarkada askotan, merkatu bakar baten barnean egon da Erresuma Batua, eta orain, Europatik irteteak kostu eta kalte asko sortuko ditu", dio Lander Belokik. Erantsi du ez dela erraza jakiten zer gertatuko den. Haren iritziz, edo akordioa egongo da, edo bigarren erreferendum bat egingo da.

Desorekak Espainian

Espainiari dagokionez, ekonomia-aren berrindartzearen moteltzearen hasiera bezala ikusten du 2018a Ekai Centerko presidente Adrian Zelaia eta dio argi eta garbi azaldu direla ekonomiaren bilakaera-



Pentsiodunen elkarretaratzea, Oñatiko plazan.

ren eta lansarien bilakaeraren arteko desorekak. Mari Carmen Gallastegiren ustez, bestetik, politikak ez badu funtzionatzen, ekonomiak sufritu egiten du eta horrek arazoak ekartzen dizkio herritarrari. "Andaluziako hauteskundearen emaitzak alerta bat dira, arlo politikoan eta sozialean".

Pentsiodunen urtea

Gure pentsiodunek protestan eman dute urtea. 1.080 euroko gutxieneko soldata, iraunkortasun faktorea ezabatzea eta erosteko ahalmena

berreskuratzea ziren gutxieneko eskariak. Espainiako aurrekontuek %0,25 igo dituzte pentsioak; hala ere, ez da nahikoa. Pentsioen kudeaketaren transferentziari dagokionez, Gallastegik dio ondo pentsatu beharreko zerbait dela. "Kalkulu asko egin behar dira, oso gizarte zaharkitua gara, pentsiodun askorekin eta gazteek zailtasunak dituzte behar beste kotizatzeo aukera emango dieten lanak aurkitzeko".

2019 eta arriskuak

2019ri begira kontuan hartu beharreko datua izango da gutxieneko soldatak bizi izango duen igoera. Hileko 900 eurotan kokatuko da eta eragin garrantzitsua izango du hainbat sektoretan, hala nola etxeko zaintzan eta lanetakoan. EAEk 2019rako aurrekontuetarako akordiorik lortu ez izana pisu handia duen ekonomia batean ez da poztekoa; izan ere, aurrekonturik ezak zalantzak eta behin-behineko ezegonkortasuna eragiten ditu sektore publikoarekiko mendekotasuna duten jarduerak guztietan: herri-lanak, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, euskara... eta ezegonkortasuna gobernantzan.

2019KO AURREKONTUETARAKO ADOSTASUNIK EZAK PISU HANDIA IZANGO DU EKONOMIAN

'BREXIT'-AREN GAINKO NEGOTIAZIO ZAILEK ERAGIN HANDIA IZAN DUTE ERRESUMA BATUAN

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@chv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABAETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABAETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Lorionak eta urte berri on!

Ingarria jami nahiz beduztu, deitu 943 25 05 05 zentekira.



Maialen Axpek aurrerapauso nabarmena eman du aurten; lehenengoz Europako Txapelketa absolutuan –Berlinen– parte hartu ahal izan du.

Axpe, Rham eta Kipchoge dira abiapuntua

EITBko kazetari Haritz Gallastegi eta Anartz Agirre kolaboratzaileak bidelagun, 2018ko kirolari nabarmenenak aurkituko dituzue errepasso honetan. Debagoienetik hasi, Euskal Herriko panorama errepassatu eta nazioartera salto eginda / **Xabier Urzelai**

Izan Debagoien mailan, Euskal Herri mailan edo nazioartean, ez da batere erraza kirol jardue- ra guztiak maila berean jarri eta inor nabarmentzen hastea; motibo askorengatik, gainera: "Txapelketa guztiak balio berbera daukate? Ala kirol jarduera batzuetan errazagoa da nabarmentzea? Eta lorpenak bakarkakoak izan beharrez talde moduan lortutakoak direnean?". Galdera horiek buruan darabiltela egin dute aurtengo analisia EITBko kirol kazetari Haritz Gallastegi elgetarrak eta Anartz Agirre bergararrak, eta eztabaida luze baterako emango luke gaiak, duda barik.

Eskalada eta atletismoa

"Nik Debagoiengan herrikide bat aukeratu dut, Mikel Linazisoro bergararra", dio Agirrek elkarrizketa hasi bezain pronto.

"Ez nuke jakingo esaten gurean zenbat kirolari egon diren Olinpiar Jokoetan parte hartzeko helburuarekin. Azkena Maider Unda izan da, eta orain momentuan Japonian egoteko borrokan dabil Linazisoro eskalatzaila".

Bergararra Europako Txapelketan lehiatu da aurten, Munduko Txapelketa absoluturako sailkatuzen, eta baita Argentinan egindako Gazteen Olinpiar Jokotarako ere: "Eta duela aste gutxi egin duten Euskadiko Boulder Txapelketan modalitate guztietan irabazi du. Gutako bat Olinpiar Jokotara joateko aukerarekin egotea sekulakoa da".

Haritz Gallastegik, berriz, Arrasateko pertika-jauzilari Maialen Axperen aldeko apustua egin du: "Axpek aurten aurrerapausoa eman du. Bailaran bertan erreferenteak ditugu atletismo-ko modalitate horretan, eta euren artean baita lehia polita ere. Baina Europako Txapelketa absoluturako gutxieneko marka lortu zuen Axpek uztailean [4,45], eta, finalerako sailkatu ez bazen ere, Berlinen ez zuen marka batere txarra egin [4,35]". Aste gutxitara, abuztu amaieran, Arrasatekoak Iberoamerikako Txapelketa jokatu zuen, Peruko Trujillo hirian, eta bigarren sailkatu zuen, 4,20 metroko markarekin.

Nabarmentzeko gehiago

Bi kirolari horiekin batera, eta hainbat motiborengatik, Gallastegik eta Agirrek hauek nabarmendu dituzte: Reyes Azkoitia –66 urterekin Emakume Master Cup Txapelketan lehiatu da–, Beñat Rezusta pilotaria –hirugarren urtez final batera iritsi da–, Andoni Gorosabel futbol jokalaria –Realean egonkortu da–, Markel Uriarte riderra –Es-

IOSU
harategia • taberna



Gabon zoriotsuak guztioi!



Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

painiako enduro txapeldun izan da-, Julen Irizar ziklista -lehen garaipena eskuratu du profesional mailan, Portugalen-, eta Martin Perez gurpil aulkiko saskibalo jokalari -Europako Txapelketan brontzea irabazi du Espainiako Selekzioarekin-.

Realeko entrenatzaile Asier Garitano ere nabarmendu dute bi kazetariak, baina azken egunetako gertaeren balorazioa Euskadi Irratian Reala jarraitzen duen Rafa Mungiak egin du: "Zuzendaritzaren porrot nabarmena da Garitano botatzearena. Dinamika txarrean dago taldea, baina etorkizunerako proiektua zena pikutara bidali dute lau hilabetetan", dio Mungiak.

"Golfean erreferenteak ditugu"

Analisirako eremua zabaldua, Euskal Herri mailako kirolarien analisia egiteko orduan, *Gallas* eta Agirre kazetariak bat datoz hemen askorik baloratzen ez den kirol jarduera bateko kirolariak nabarmentzen: "Jon Rahm *crack* hutsa da, nahiz eta hemen ez dugun behar den moduan baloratzen. Munduko seigarrena da, eta, besteak beste, Tiger Woods-i irabazi dio", dio Agirrek.

Hain zuzen ere, irailean, Ryder Cup-eko 17. zuloan bizi izan zuen golf jokalaria bizkaitarrak orain arteko momentu gogoangarrietako bat. Estatubatuarrek lehia berdintzeko zuten aukera zapuztu zuen Rahmek, Tiger Woodsen kontrako lehian, *putt* batean asmatu eta gero: "Mundu mailako izarra da, sei onenen artean dago, eta edozein egunetan munduko onena bilakatuko da", gaineratu du Gallastegik.

Baina Rham ez da Euskal Herriak golfean duen erreferente bakarra: "Carlota Zigandak urte mordo daramatza elitean, eta



Jon Rham golf jokalaria bizkaitarra kolpea eman berritan.

"GOLFEAN GUREAN EZ DAGO APARTEKO ZALETASUNIK, BAINA ERREFERENTEAK DITUGU"

"GARITANO KENDUTA, REALEAN LUZERAKO IZAN BEHAR ZEN PROIEKTUA SEGITUAN JOAN DA PIKUTARA"

oso lorpen garrantzitsuak ditu. Kurioso da, baina, herri honek golfak zale asko ez baditu ere, mundu mailako erreferenteak ditugu".

Pilota eta boxeo

Euskal Herrian jarraituta, oraindik asko daude nabarmentzeko merituekin: "Imajinatzen dut *Gallas*-ek nondik joko duen, eta nik hark aukeratuko ez duen kirolari batekin jarraituko dut euskaldunen arteko errepasoa, Eneko Llanos triatletarekin", dio bergararrak, umorez. "42 urte-

rekin Arizonako ironmana irabazteko gauza izan da, eta kontua da gasteizarrak bost urte zera-matzala lasterketarik irabazi barik. Halako hutsune baten ostean berriro ere maila gorenera bueltatzea oso zaila da, eta kontua da Hawaiiko ironmanerako txartela eskuratu duela. Bada, elite mailan, dagoeneko 13 alditan sailkatu da munduko ironman entzutetsuenerako".

Euskadi Irratiko esatari Gallastegik, berriz, Kerman Lejarraga boxeolariaren aldeko botoa eman du: "Miribillan 10.000 lagun

URTEKO GERTAERA NAGUSIAK

Axpe, Europakora

Espainiako Txapelketan lortu zuen Maialen Axpek, 4,45 metroko saltoa eginda -zilarrezko domina-, Europako Txapelketarako txartela. Berlingen, abuztuan, ez zen finalerako sailkatu (4,35).

Rezusta, txapeldunorde

Elezkanorekin batera Eskuz Binakako txapeldunorde izan da Aspeko pilotari bergararra.

Enduroan onena

Katalunian, Galizian, Avilan, Cuencan eta Asturiasen jokaturako lasterketetan puntuak batuta, Espainiako txapeldun izan da Markel Uriarte.

Maila nazionalera

Ford Mugarri Arrasatek etxean jokatu zuen maiatzean Maila Nazionalera igotzeko lauko tornea.

Julen Irizarrek, irabazi

Uztailen profesional mailako lehen garaipena lortu zuen Bergarakoak (Euskadi-Murias).

Mikel Linazisoro

Urriaren Argentinan egindako Gazteen Olinpiar Jokoetan hartu zuen esku Bergarako eskalatzaileak.

AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Nagore Agirre Odontologoa ELK. Zenb. 162-A
Alaitz Agirre Odontologoa ELK. Zenb. 611-G

Ibargarai 32, behea BERGARA | agirrehortzklinika@gmail.com | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28

Gabon
Zoriontsuak
guztici!



Eliud Kipchoge, Berlingo maratoian.

batzeko kapaz da bizkaitarra. Sekulako karisma dauka, duela urte batzuk Euskal Herrian bo-xeoak indar handia zeukan eta ondoren beherakada nabarmena izan zen. Eta, poliki-poliki, badoa gora".

Eta horiek aipatuta, frontoi-rako bidea hartu dute biek ala biek: "Niretako, Koteto Ezkurra erreferente ederra da", dio Agi-

rrek. "Erremontean egin duen ibilbidea errepikaezina da, baina, hortik harago, pertsona moduan ere asko balio du". Gallastegi, berriz, Joseba Ezkurdiarekin akordatu da: "Eskuz Bina-kakoa irabazi eta gero, Joseba Ezkurdia Lau t'erdikoa irabazteko kapaz izan da. Eta azken torneo hori irabazi izana berezia izan da, lehenago, itxuraz, pre-

sioarekin behera egiten zuelako, ez zuelako bere mailarik onena ematen... Oraingoan, beldur horiek guztiak uxatu egin ditu eta Altunaren kontra merezita irabazi zuen".

Maratoiko errekor berria

Amaitzeko, Euskal Herriko mugak gaingitu eta nazioartera begira jarri ditugu Gallastegi

eta Agirre. Eta, atletismoan adituak ez badira ere, ez dute zalan-tzarik izan: "Eliud Kipchoge-k Berlingo maratoian ezarri duen errekor berria estratosferikoa da". Eta ez zaie arrazoirik falta. Izan ere, Kenyako korrikalariak 2.01.39ko marka ezarri zuen 42,195 kilometroko distantzian. Zernolako kirol marka den garbiago adierazteko, Rioko Olinpiar Jokoetako irabazleak minutu bat eta 18 segundo ondu zuen aurreko errekorra; hain zuzen ere, Dennis Kimettok 2014an ezarri zuena.

Hala, Usain Bolt-ek 100 eta 200 metroko probetan ezarritako markekin gertatu moduan, seguruenik, hamarkadak beharko dira ostera ere Kipchogek ezarritako marka hori ontzeko -bal-din eta 2019an protagonista berberak beste ahalegin bat egiten ez badu-. Gallastegik jarraitu du berbetan: "Horrekin batera mundu osoaren ahotan egon den beste kirolari bat da Simone Biles. Ez du inork lortu Dohako Mundialean irabazi duena irabaztea, eta historiako gimnasta onena bilakatu da". Izan ere, duela bost urte debuta egin zue-

netik, estatubatuarra izar bilakatu da. Parte hartu duen munduko txapelketa guztietan gailendu da, eta inor ez da izan horretarako kapaz, ezta Michael Phelps edo Usain Bolt moduko kirolariak ere.

Eta bi kazetariak hainbat beteranoren aldeko hautuarekin amaitu dute 2018ko analisia: "Tenisean hor jarraitzen dute Nadalek, Djokovicek eta Federe-rrek; mundu mailako onenen artean daude, eta hiru tenislari horiek dagoeneko beteranoak dira".

Gauza bera gertatzen da beste beterano batekin, txirrindulari-tzan 38 urte dituen ziklista batek irabazi du-eta Munduko Txapelketa: "Alejandro Valverdek ere aipamena merezi du, bere kirol bizitza oparoa borobiltzen duen lorpena egin duelako".

**"SIMONE BILES-
EK
GIMNASIAN EGIN
DUENAK EZ DU
AURREKARIRIK,
IKUSGARRIA IZAN DA"**

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN

BERGARA / Mabiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

*Zorionak eta
urte berri on!*

Irteerak jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Handia filmeko lantaldea Goya sarien ekitaldian, otsailean. MORIARTI

Ekimen berriak, elkartasunetik eta herrigintzatik

'Handia' filmak eta 'Erlauntza' antzezlanak poztasuna eragin dute; Shot! estudioaren suteak, atsekabea eta elkartasun erantzuna; Bizkaian egin duten MTV-EMA sarien ekitaldiak, eztabaida; eta Bergaran errodatu duten 'Agur, Etxebeste!' filmak, ilusioa / **Aitziber Aranburuzabala**

Iazkoa bukatu zuen bidetik hasi zuen urtea *Handia* filmeko lantaldeak. Zinema kritikarien eta kazetarien eskutik bi Feroz sari jaso zituzten urtarrilean, eta, segidan, hamar Goya. "Zoragarria izan da Twitter eta bestelako sare sozialetan, espainiarrak euskaraz egindako film bat gomendatzen ikustea. Mundura salto egiteko aukera izan dute Netflix-ekin", nabarmendu du Gaztea-ko esatari Ainhoa Vitoria arrasatearrak.

Aurten ere, zinema-uzta oparoa
Film asko errodatu dira; horien artean, *La trinchera infinita*, Aitor Arregi oñatiarra kide den Moriarti taldea dagoeneko muntatzen ari da; eta bide antzerakotik doa Bergarako Asier Altuna *Kixi*-ren eta Telmo Esnalen *Agur, Etxebeste!*

Abuztuaren 28an hasi eta hiru astean grabatu zituzten, Bergaran,

Etxebeste familiaren istorio berriak; oinarrian, orain dela hamalau urte egon zen talde artistiko eta tekniko bera, berreskuratutako dekoratuetan eta lokalizazio berrietan. Jaioterrian ondo hartu zuten berriz Altuna; asko izan ziren kameraren aurrean jarrita edo grabatzeko tokiak eta gauzak utzita lagundu zutenak. Datorren urtean izango da filma aretoetan. "Igartzen da jendeak aurreikuspen altua duela eta gogo handiz ikusiko duela bigarren atala", dio Vitoriak: "2019ko euskal pelikularik entzutetsuena izango da".

Film laburretara salto eginda, Oñatiko LPM taldearen *Lope* berbagai da. 100 laguneko lantaldeak kontatu du Anjel Lerak idatzitako istorioa 40 minutuko film "zoro" batean, non, "Oñatiren independentzia berreskuratze" Lope de Agirre jaioterrira ekarzen duten. Arrakasta izan zuen herriko estreinaldian, eta Durangoko Azokan ere eskaini zuten; orain, herririk herri ari dira. Era berean, aipatzekoa da Iban del Campo arrasatearraren *Espedizio handia* film laburra aukeratu dutela aurtengo Kimuak katalogoan.

Errastiren lanak, txalotuta

Erlauntza antzezlan goraipatu dute Gazteko Ainhoa Vitoriak eta EITBko kazetari Beñat Zamalloak. Errastiren dramaturgia azpimarratu du Zamalloak: "Ikaragarria da lan honetan erakutsi duen heldutasuna; iazko *Mami Lebrun*-en nabari zen bazetorrela zerbait. Sekulako indarra du *Erlauntza* lanak; komedia da, baina sendoa: antzerkitik pentsatuta idatzitakoa, aktore askorekin, testu konplexua...".


Ez da hori, baina, aretxabale-tarrak aurten taularatu duen lan

Xenkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Gozokiak
- Pizzak, hanburgesak, hot dogak...
- Opariak

Urte berri on!!!



URTEKO GERTAERA NAGUSIAK

'Handia' filma

Moriarti Ekoiztetxeok hamahiru izendapen zituzten eta hamar sari eskuratu zituzten.

'Agur, Etxebeste!' filma

Hamalau urte geroago, Etxebeste familiaren istorio berriak filmatu dituzte.

Kontzertu "erraldoia"

750. urteurrena gogora ekartzeko ikuskizun jendetsua eta hunkigarria egin zuten Bergaran.

MTV-EMA sariak

Telebista kate ezagunak Europako Sarien Gala egin zuten Barakaldoko BECen.

Shot! estudioan sutea

Maiatzaren 11ko gertaerak elkartasun uholdea ekarri zuten segituan.

'Ttap' aldizkaria

Euskarazko aldizkari digitala sortu dute Euskal Herriko hainbat tokiko hedabidek elkarrekin.

Oihana Arana

Gipuzkoako Eskolarteko txapela bigarren segidan irabazi du Eskoriatzakoak.

Beratu jaialdia

Musikarekin gozatzeko eta musika industriaz hausnartzeko asmoarekin sortu dute, Oñatin.

bakarra: *Txarriboda* eta *Lur* ere aurtengo uztakoak ditu. Azken horrekin, Azpeitiko Antzerki Topaketen Ikusleen Saria eskuratu berri du eta Donostia Antzerki Saria jaso zuen, *Mami Lebrun*-ekin, martxoan.

Eta ezin atala borobildu, Iker Galartzaren eta inguruan dituen artista kuadrillaren *Gure zirkua* aipatu barik. "Ikuskizun handiak heltzen ez diren tokietara eraman dugu. Ederra da ezer ez dagoen tokian zerbait eraikitzea, eta politikak dira, oso, herritarrekin bizi izan ditugunak", dio Galartzak. Sarrerak agortu egin dituzte emanaldi guztietan; hortaz, asmatu du ikuskizunarekin.

Bihotzetik sortutako doinuak

Musika arloan, gertakari "penagarri" bat ekarri du *Berria* egunkariko kultura arduradun Mikel Lizarralde: Arrasateko Shot! grabazio estudioan maiatzaren 11n izan zen sutea. Tristura handia sortu zuen albisteak eta segituan zabaldu ziren Iñaki Bengoaren eta estudioaren aldeko mezu gozoak; eta mezu horiek elkartasun ekintza bilakatu ziren geroago. "Taldea asko pasatu da Shot!-etik, Debagoienekoak ez ezik, baita Euskal Herri osokoak ere; eta badakit Iñaki Bengoak pasioz bizi duela bere lana eta musika orokorrean. Irailean Amaia antzokian Shot!-en alde egin zuten kontzertuan bildutako artisten izenak ikusi besterik ez dago hori konfirmatzeko". Mimos prestatutako ekitaldiak lepo bete zuten antzokia, eta "asko eskertu" du Bengoak jaso duen babesa. Urtarrilaren 5ean, bigarren IShotU jaialdia egingo dute, oraingoan, Musakolako kiroldegian, eta, "dena ondo bidean, 2019an estudioa lanean jartzea da asmoa.



San Mamesen egin zuten MTV-EMA kontzertua azaroaren 3an. OIHAN VEGA

'HANDIA'-K MUGAK GAINDITU DITU: HAMAR GOYA LORTU DITU ETA SALTO EGIN DU NAZIOARTERA

SHOT!-EN IZANDAKO SUTEAK MUSIKARIEN ETA MUSIKAZALEEN ELKARTASUNA ETA BABESA IZAN DU

BERATU, "GERTUKOA ETA HURBILA" IZAN NAHI DUEN JAIALDIA, ABIATU ZUEN OÑATIKO UDALAK MARTXOAN


URTEA BUKATZERAKO, AURTEN JAIO DEN 'TTAP' ALDIZKARI DIGITALAK HAMABOST ALE IZANGO DITU

Bergaran ere izan da jende asko, askotariko belaunaldi eta profiletakoak batu dituen ikuskizun bat: Bergararen 750. urteurrenaren kontzertu "erraldoia"; segituan agortu ziren sarrerak. Gazteko esatari Oihan Vegak gertutik bizi izan zuen ekimena: "Urteko ekimen kultural nagusietako bat izan zen, nire ustez. 200 artista taularen gainean, guztiak bat eginik proiektu erraldoi batean, nortasunaren adierazle den ikuskizun berezi baten alde lanean. Bi hitzetan, izugarria eta ahaztezina".

Jaialdien inguruan, eztabaida

Kontzertuak ugari izan dira aurtengo Debagoienean, eta eskertzekoa da, ohiko ordutegi eta tokiez gainera, bestelako ordu eta guenetara zabaltea eskaintza. Berrikuntzen artean aipatu beharrekoa da martxoan Oñatin egin zuten Beratu jaialdia. Kontzertuez harago, musika industriako profesionalen elkargunea izateko asmoz abiatu zuen jaialdia, "gertukoa eta hurbila, Oñatiko Udalak, askotariko elkarrekin eta eragileekin. Asteburu "emankorra" izan zen, musika industriaren egoeraz hausnartzeko profesional asko bildu ziren mahaiaren bueltan, eta musika eskaintza aldetik ere aukera asko izan ziren. Antolatzaileen "aurreikuspenak gaindituta" eta "gehiagoren gogoz", datorren urtean jarraipena izango du.

Musika jaialdiak asko egin dira Euskal Herrian, baina eztabaida, bereziki, MTV-EMA Europako sarien galak sortu du. Azaroaren 4an Barakaldoko BECen egin zuten telebista kateak sari bana-keta ekitaldia eta aurreko egunetan Durangon, Getxon eta Bilbon egin zituzten kontzertuak. Erreportajeko kolaboratzaileek



Atxabaitar dano! zorionak eta urte barri on!

ere iritzi ezberdina dute. Vegaren eta Vitoriaren ustez, "onuragarria" izan da ekitaldia Euskal Herrian egitea, eta baita horrek sortu duen eztabaida ere. "Sekulako lan estrategikoaren emaitza izan da Aneguria, Belako eta Berri Txarrak taldeak ekitaldian izatea, eta nik neuk San Mamesko kontzertua euskara hutsean aurkeztea. Hori bai, hurrengorako, eztabaida sakona egin beharko litzateke, diru publikoa xahutzeko orduan mugarik jarri behar den zehazteko", dio Vegak. *Berria*-ko kazetariak dio "ebentoen garaian bizi garela", eta zera gaineratzen du: "Zenbat eta handiago eta publizitate gehiago, orduan eta hobeto. *Ebento* horiek bihurtzen dira kulturaren ardatz, askotan kultura denean inportantzia txikiena duena. Politikariari entzun besterik ez dago". Eta zera erantsi du Zamalloak: "Batetik, Berri Txarrak taldeak jo behar zuen edo ez? Bakoitzak ikusiko du zer egin, ezta? Eta bestetik, uste dut aztertu beharko litzatekeela ekitaldiak ze eragin izan duen Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Basque Country markarako; zalantza dut zenbat



Irailean egin zuten, San Martin plazan, Bergararen 750. urteurrenaren ikuskizuna. BERGARAKO UDALA

aldiz entzun den munduan Bilbo izena.

Bertsolaritza

Gipuzkoako Eskolartekoa irabazi du bigarren urtez segidan Oihana Aranak; Saran jokatu

zen finalean, Aramaioko Aitor Ugarte izan zuen lagun. Bertso eskola berekoa izanik, Arana gertutik jarraitu duela dio Zamalloak: "Bertsoarekiko duen jarrera, maitasuna eta gogoazpimarratuko nuke".

Txapelketa handiagoei begira, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa Onintza Enbeitak irabazi du; Jon Enbeita osabak –Bizkaiko txapeladuna izandakoak– jantzi zion txapela Miribillako Bilbao Arenan jokatu zuten finalean.

Irakurtzeko modu berriak

Durangoko Azokan izan diren liburu berriak eta zerrenda horretatik kanpo daudenak zenbaita, asko sortu da aurtien ere. Azokako antolatzaileen balorazioa jasota, pozik egoteko arrazoiak daudela dirudi, baina urtean zehar egin diren ikerketen emaitzaketsigarriagoak dira. Elkarrek eta Siadecok martxoan egin zuten ekarri du Lizarralde: "Ondorio nabarmen bat: euskaldun gehienek ez dituzte euskarazko produktuak kontsumitzen, 40.000 euskaldunek bakarrik; hau da, euskal hiztunen %5ek".

Hona, bada, bi proposamen: batetik, irailan jaio zen *Ttap* aldizkari digitala, eskuko telefono eta tabletetan irakurri, ikusi eta entzun daitekeena; Goiena, Anboto (Durangaldea), Baleike (Zumaia), Tokikom euskarazko tokiko hedabideen elkartea eta Esguard (Bartzelona) dira bultzatzaileak. Bigarren proposamena Zamalloak egin du: "Harkaitz Canoren azken ausardia aukeratuko nuke: *Fakirren ahotsa*. Ausarta irudituzait Imanolen bizitzan oinarritutako nobela bat idaztea".

2019AN ERE
TALDEAN AURRERA

goiena⁴
Zu hemen zaude.



JON ZUBIAGA
MUSIKARIA ARRASATE



Gizarte borrokako lezioak: emakumeek Martxoaren 8ko greban eta pentsiodunek Bilboko mobilizazioetan. Garai ilun honetako bi argi izpi dira.



Marka zuriko faxismoaren gorakada mundu mailan. Pantailen garaia da, eta begitik sartzen dena sinesten dugu, sen kritikorik gabe.



MAIDER EGUES
KAZETARIA ARRASATE



Handia, Oreina, Black Is Beltza, Agur, Etxebeste!... Euskal zinemaren indarrak arnas berria dakarkigu. Sormena, indarra eta gogoia.



Hendaian bizi izanik, ikusi ditudan *berotan egindako itzulketak*. Etorkinen arazoari gero eta ilunago ikusten diot konponbidea.



AITOR LOPEZ REKARTE
KIROLARIA ARRASATE



Aitor Zabaletaren heriotzaren 20. urteurrenaren harira, hasieratik euskal gizarteak izan duen erantzuna. Betiko gogoratuko dugu Aitor.



Kontu horrekin lotuta, zoritxarrez, futbol zelaietan horrelako zerbait gertatu behar da, bizitzan garrantzitsua zer den jakiteko.



AINHIZE BARRAINKUA
IKASLEA ARETXABALETA



Ezin ahaztu Martxoaren 8an lantegiak, bulegoak, ikasgelak, etxeak... hustu genituenekoa, plazak eta karririk betetzeko, emakumez eta aldarriz.



Sei erailketa matxista izan dira Euskal Herrian 2018an; ezin konta ahala bortxaketa, mehatxu, ukitu... nahikoa da! Eraso bakar bat jada gehiegi da!



JUAN MARI AGIRREURRETA
FRANTSES IRAKASLEA ARETXABALETA



Euskara batuak Arantzazun hasi zuen bide sendoak mende erdi bete du. Euskara ez da bakarrik gure hizkuntza, gure tresna da. Zorionak!



Hamar negu bete dira, Mikel Laboa, zu galdu zintugunetik; baina zure hitzak, Mikel, esan berriz, esan, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal...



BEÑAT ILLARRAMENDI
HERRITARRA ESKORITATZA



Euskaraldia egin izana azpimarratuko nuke. Nire inguruko jendea dezente inplikaturik ikusi dut hamaika egun hauetan.



Eskoriatzan jairik edo kontzerturik ez badago, ez dago ezer: pintxo-pote egunetan eta asteburuetan giroa falta da herrian.



JAIONE JAUREGI
HERRITARRA ESKORITATZA



Mugimendu feministak azpimarratuko nituzke. Emakumeak eta gizonak batera irten gara, bilakaeraren giltza gizarteak duela jakinaraztera.



Tristuraz adierazi eta azpimarratu nahiko nuke eskuin muturraren faxismoak azkenaldian izan duen gorakada nabarmena.



AINHOA BARANDIARAN
HERRITARRA LEINTZ GATZAGA



Gatz Bidie poliki-poliki badoa aurrera, bailararekin komunikatzen gaituen beste bide garrantzitsu bat da guretzat.



Zoritxarrez, azken urteotan gora doazen indarkeria matxista kasuak azpimarratuko nituzke urteko gauza txar moduan.



JOANITO SAIZAR
HERRITARRA ARAMAIO



Euskaraldiak izan duen arrakasta aipatuko nuke: herritarrek emandako erantzun ona eta ekimenaren eragina.



Kezka sortzen dit Espainian eskuin muturrak erakutsi duen indarrak, kontuan izanda zein diskurtso darabilen hainbat gairekin lotuta.



IRATI MUXIKA
HERRITARRA ARAMAIO



Greba feminista, ezkutuko zaintza lanak erdigunera ekarri eta amantalen atzean dagoen karga bistaratzearren, pribatua publikora azalduz.



Antxo, etxetik 1.000 km-ra hil den preso politikoa, eta sakabanaketagatik senideak ikusteko aukerarik gabe hil diren nagusiak; azkenak bitez!

Aixa
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69



URTE BERRI ON!!!!



ANDONI LARRAÑAGA
TXAPA IRRATIA BERGARA



Bergarako eta bailarako talde feministen lana. Martxoaren 8koa oso garrantzitsua izan zen, baina urte guztian egiten duten lana da zoriontzekoa.



Birziklatze-tasak baxua izaten jarraitzen duela. Sistema ez da oinarria, baina laguntzen du; argi dago egungo sistemak ez duela helburua betetzen.



ANA PARRA
MERKATARIA BERGARA



Euskaraz ez egin arren, Euskaraldia; euskara presente egon dadila kalean. Bestalde, herrian zinema izatea ona izango da denontzat.



Europara heldu guran itsasoan hil direnak. Agintariek beste alde batera begiratu edo sarrera galarazten diete; herritarrok ere ez gara batere inplikutzen.



ALEX GARDOKI
BERGARA KE-KO SASKIBALOI SAILA BERGARA



European Physical Societyk (EPS) Bergara zientziaren *leku historiko* izendatzea. Gure herriak merezi duena jaso du Elhuyar anaien lanari esker.



Migrazioaren aurrean politikariek hartzen dituzten erabakiak. Zubiak eraiki beharrean, hesiak eraikitzen ari dira.



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ
HISTORIALARIA ANTZUOLA



Ustekabeen aurrean edo zerbait antolatu behar denean herritarrek egoerari erantzuteko duten jarrera baikorra pozgarria da.



Ezgonkortasuna dela-eta gaztediak bizi proiektu propio bat ganoraz garatzeko han eta hemen aurkitzen dituen zailtasunak.



JUENA DORNALETCHE
OSTALARIA ANTZUOLA



Uholdeek eragindako elkartasuna izan da onena. Une latzaren aurrean herri osoa elkarrekin bat eginda ikusteak harro sentiarazi nau.



Argentinako abortuaren despenalizazioaren aurkako epaia. Aborturako eskubidea izatea giza eskubidea eta justizia soziala da.



AITOR GURIDI
TXANTXIKU IKASTOLA OÑATI



Urte batzuk lanean arituta, ikastetxeek, Udalak lagunduta, Eskola Kirola Elkarte martxan jarri eta herriko erakundeek emandako babesak poztu nau.



Justizia ez dela justua izan. Zerbait aldatu behar da, gizarteak ez ditu ulertu eta onartu epai batzuk: *La Manada*, hipotekak, Cabacas, Altsasu...



LURDES UGALDE
URGAIN OÑATI



Hunkigarria eta positiboa izan da Oñatik azaldutako elkartasuna errefuxiatuekin. Herritarrok harrera ona egin diegu eta laguntzeko gaude.



Hezkuntza-sisteman kohesioa eta berdintasuna lortzea helburu zuen eskola inklusiboaren aldeko herri proposamena ez onartzea.



ISMAEL ZUBIA
ELKAR HEZI OÑATI



Abbadia saria *Ahotsak.eus*-i. Euskal Herri osoko eta euskalki guztietako testigantzak jaso eta eskumen librean sareeratzeagatik.



Giza balioen galera: giza eskubideen urraketa, migratzaile karabanak, harresiak, biolentzia, xenofobia, ultraeskuina bueltan...



AINHOA ZEZIAGA LARREA
IKASLEA ELGETA



Jendea indarkeria matxistarekiko kontzientzia hartzen ari da eta talde feministak gauza asko lortzen ari dira.



Elorrioko taberna bateko nesken komunean kamerak aurkitu zituzten orain dela gutxi. Horrelakoak onartezinak dira.



JON UGARTEBURU
IKASLEA ELGETA



AEBetara etortzea eta hemen bizi izandako esperientzia: ikasketak, ingelesa, lagun berriak... Edonori gomendatuko nioke.



Akaso, ekainean taldearekin maila igotzeko galdu genuen partida. Denboraldi eder baten ondoren, ezin izan genion amaiera polita eman.

Artisan-ogia, etxean bertan egina

Basabe poligonoa 2 ARETXABALETA Loramendi 6

Zorionak eta urte berri on!

GIZARTEA 2019

Berdintasunezko gizarte batera heltzea helburu



ELENA LAKA (TOPAGUNEKO PRESIDENTEA)

Bukatzen gabiltzan 2018 honetan bi ahalduntze prozesu ikaragari gertatu dira Euskal Herriko herritarren artean: euskalgintzatik abiatuta bata, feminismoetik abiatuta bestea.

Aurreko urtean, 2017an, abiatutako bi gizarte mugimenduek 2018an izan dute erabateko garapena: bata Euskaraldiaren ariketa soziala egin bitartean, eta ariketa hori gertatzeko egindako ibilbide osoan zehar, Euskal Herri osoko erakundeen eta gizarte mugimenduen eta eragileen eskuz eskuko lana ekarri duena, eta besteak, berriz, Martxoaren 8ko greban, milaka emakume kalera atera ginenean, eta gizarte patriarkalaren aurreko jabetze eta salaketa ekarri duena.

Gakoa, hedadura

Hain zuzen ere, bi ahalduntze horien garrantzia, nire ustez, hedadura egon da. Hau da, gizartearen zati handi bat sentitu da ahaldunduta euskaraz hitz egiteko bere egunerokoa, edo, feminismoaren kasuan, bere burua feministatzat jotzeko eta emakumeen berdintasunaren



**BIDEARI EGIN ZAIO,
ESKUZ ESKUKOA,
BAINA EGITEKO ASKO
DAGO ORAINDIK**

aldeko aldarria egiteko. Euskalgintza eta feminismoa ziren nukleo militante batetik, gizarterako jauzia egin da, eta herritarrak jabetu dira beren eskubideez, beren legitimatzeaz, beren indarraz beste herritar askoren onespenerekin ekiten badute.

Edozelan ere, bi gizarte mugimenduen zabaltea eta herritarren konpromisoa eta onarpena ikaragarria izan bada ere, bi arloetan ez gara iritsi, inondik inora, aldaketa sozial bat lortzera. Hasi egin gara, habeak jarri dira, baina ekin, eta abiatu, eta jarraitu, eta lantzen segi, eta iraun egin beharko dugu euskaldunen eta emakumeen eskubideak berdintasunezko moduan errespetatuko dituen gizarte batera iritsi ahal izateko.

Sektore guztietara ailegatu

Horrenbestez, jarraitze horretan kokatzen dut nik neuk 2019. urtea. Alegia, nahi dugun berdintasunezko gizarte horretan beste urrats bat egiteko urtea izango da. Izan ere, bidetari ekin zaio, eskuz eskukoa, baina egiteko asko dago oraindik. Gizarte sektore guztietara ailegatu beharra dago: Bilboko Iberdrola dorrera eta Gasteizko Astegieta auzora, Iruñeko kasinora eta Baionako Ikeara. Eta, leku horietara guztietara sartu ahal izateko, beharrezko izango dugu gizarte hizarmenak egitea, kalean ikusten den mugimenduari men egin, eta baita ere botere politikoan konplizitateak topatu.

Erretiratuak, txaleko horiak...

2019. urtean kalean ibiltze horretan euskaltzaleak eta feministak ez gara bakarrik egongo. Topatuko dugu tartean kalera ateratzea premiazko ikusi duen

bestetik: hor erretiratuak, adibidez, jo eta ke, pentsioak igo arte, astero kalea eura dela aldarrikatuz.

Baina baita ere beste batzuk: txaleko horiek, oraingoz, Frantzia dihardute protestan, baina, ikusita mugaren hegoaldeko langileek daukaten egoera prekarioa, ez litzateke arraro ezinegonak mugak gainditzea.

Eta berdintasunaren aldarrikapen horretan, pentsatu beharko dugu zer egin europartzat ez dauzkagun herritarrekin. Hau da, nola jarraituko dugu bizitza Europako mugatik kanpo datorren pertsonari bizkar eta ipurdi ematen dion gizarte batean? Nola egingo dugu hizkuntza eta generoan, baina baita ere arrazan, berdintasunera iritsi ahal izateko?

Eta, azkenik, ikusita Ebrotik behera lider gasteiztarrek izandako boto-emaitzak, gerta liteke baita ere bere baitan biltzea berdintasunaren erabat kontra daudenak eta horiek ere kalea beraienatzat hartzea. Izan ere, bere pribilegioetan eroso instalatuta dauden morroi horiek nekez utziko diote gizarteari berdintasunaren aldeko pausoak ematen.

Lanean segitu behar

Alegia, 2019 hau ere entrenitutako datorrela, goritxo, aspertzeko betarik barik.

Teman jarraitu behartu beharko dugu, orain arte, 2018an eta lehenago lortutako eskubideetan batera atzera ez egiteko, eta, batez ere, berdintasunezko gizarte batera iritsi ahal izateko, hizkuntza, genero, arraza eta aberastasun banaketari dago-kionez.

Badakit, utopia bat. Baina zerbait egin ahal dugu.

Erosi osteko Brunet zerbitzua



ECHO
Maquinaria Forestal y Jardineria

Munduko txikiena
CS-2511TES



comercial BRUNET

Telleria 2, Labegaraieta, BERGARA.
943 76 31 52 • www.comercialbrunet.com



**Transmisio berria,
bakarra munduan**
RM-520ES



*Gahon
zerbitzuak
guztiak!*

EKONOMIA 2019

Aurreikuspena, zaila bezain aurreikusezina



URKO LOPEZ (EKONOMIALARIA)

Azken urteotan ekonomiak ikasgairen bat eman baldin badigu, beronen portaera %100ean aurreikustea ezinezkoa dela da. Nahikoa da gobernu aldaketa bat, herrialde batean krisi politiko eta instituzionala izatea, zein nazioarteko harremanetan bi herrialde edo gehiago ikamketan hastea, bai herrialde horien zein inguruko egonkortasun politiko, sozial eta ekonomikoa hankaz gora jartzeko.

Lehen gerturatzea ekonomia orokorretik egingo dugu; mundu mailatik. Ezin aipatu gabe utzi nazioarteko erakundeek esandakoa. Batetik, Munduko Bankua dugu; bertako agintari nagusi Jim Yong Kim-ek inbertsioen geldotze bat ageri dela adierazi du, eta horrek herrialde guztientzat efektu negatiboak ekarriko dituela. Bestetik, ELGEk (Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundea) adierazi du hazkunde globalak bere goia joduela. Modu berean, Nazioarteko Diru Funtseko ikerketaburu Maurice Osbafeldek ekonomiaren geldotzea nabarmentzen du, eta haren hitzak erabilia, "ekaitzak ari dira gerturatzen".

Trump, 'Brexit'-a, Brasil...

Esan beharrik ez dago ez direla aurreikuspen gustukoak, batez ere, nazioarte mailako hiru erakunde nagusienak klabe berean ari direnean, ñabardurak ñabardura. Horren arrazoiak asko eta tankera desberdineta-koak dira; nahikoa da hiru adibide aipatzea eta nola eragiten duten. Lehenengoa, Ameriketako Estatu Batuek (AEB) martxan jarri dituzten eta jarri nahi dituzten neurriak -Txinari jarritako muga-zergak, Europako produktuekiko jarrera, eta abar-, eta nabaria da horiek nazioarteko merkataritzan daukaten eragina. Bigarrena, *Brexit*-a, zeinak etorkizunean Erresuma Batuaren eta Europako Batasunaren arteko harreman ekonomiko eta politikoak finkatuko dituen. Eta hirugarrena, Brasilgo ezegonkortasun politiko eta ekonomikoak. Herrialde hori Latinoamerikako ekonomia handiena da, eta bere arazoek inguruko ekonomietan eragiten dute.

Horri gehitzen badiogu bere auzokide den Argentina ere burua altza ezinik dabilela, ez du egoeraren inguruko ezjakintza

areagotu besterik egiten. Mundua hain globala izanik, ez da zaila horietan dauden eraginek beste herrialdeetan eragitea; izan ere, guztiak gara norbaiten bezero edo hornitzaile.

Ekonomiaren geldotzea, agian

Gurera baldin bagatoz, Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailak


plazaratutako hiruhileko txostenean -irailean argitaratua-, adierazten da Barne Produktu Gordinean hazkundera gertatuko dela 2019rako, baina hazkunde hori 2018an baino apalagoa izango dela -%2,8 haztetik, %2,3 haztera-; beraz, ekonomiaren geldotze posible bat aurreikusten da. Gogoratu dezagun aurreikuspenak hori direla, aurreikuspenak, eta ez dakigu zehatz-mehatz beteko ote diren. BBVAk soilik ematen dio hazkunde aurreikuspen handiagoa (%2,8), baina maiatzean argitaratutako alean. Horrenbestez, zaila da aurreikuspenak egitea. Gure sare ekonomiko eta sozialarentzat ezinbestekoa izango da, ez 2019ra begira, baizik eta ondorengo urteei begira, dibertsifikazioa are gehiago lantzea, bai negozio berriei dagokienez -teknologiak, Industria 4.0 delakoa eta produktuei loturiko zerbitzu aurreratuek barneratzen dituztenak eta ezagutzen intentsiboak

diren zerbitzuak- eta trebakuntza programa berriei dagokienez -big data-ren ingurukoak, enpresak beste modu batean ulertu eta kudeatzearen ingurukoak eta titulazioen hibridazioak-, eta horren guztiaren arrazoiak nahiko sinplea da: ezin ditugu orain dela 3-4 hamarkada egiten genituen aktibitate berberak landu betirako; lehiakide asko dauzkagu munduan barrena eta horiei aurre egiteko modu bakarra urteak eramango dituen birrespezializazioa da.

Aldaketak izan daitezke

Edozelan ere, nahikoa da aurretik aipatutako herrialde/gune geografikoetan dinamismo ekonomikoa areagotu dezaketen neurri edo egoera jakin batzuk suertatzea -herrialdeen arteko jarrera aldaketak, beraien aktibazio ekonomikoa...- aurreikuspenak ez betetzeko.

Ondo amaitu eta hobeto hasi urtea!



AEB-EK MARTXAN
JARRITAKO NEURRIEK
ERAGINA IZANGO
DUTE MUNDUKO
EKONOMIAN

oerlikon
balzers

Gabon
zoriontsuak
guztioi!

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola

Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

KIROLA 2019

Kantitatea izango dugu, baina baita kalitatea ere



ARATZ LOSADA

Urtea amaitzear da. Eta zuetako asko balantzeak egiten ibiliko zarete. Garai honetan, ohikoa da era honetako irakurketak egiten ibiltzea. Baina bizitza ziztu bizian doakigula kontuan hartzen badugu, zer iruditzen zaizue iragan direnak atzean utzi, eta etorkizunera begira jartzen bagara?

Konturatu orduko 2019a gainera etorriko zaigu eta kirol kontuei dagokionez, urte berezi baten aurrean kokatuko gara. Zergatik? Tokioko 2020ko Olin-

piar Jokoen atarian jarriko baikara. Bakarka zein taldeka aritzen diren ehunka kirolarik bilatuko dute amets hori eta iruditzen zait balentria bat baino gehiago ikusiko ditugula datozen hilabeteotan. Hala ere, bada Tokiora begira egongo ez denik. Alde horretatik, bestelako kontu batzuk jorratu nahiko nituzke ondorengo lerroetan.

Emakumeen urtea

Emakumeentzat urte garrantzitsua izan liteke. Poliki-poliki,

merezi duten espazioa hartzen ari baitira urteetan gizonezkoena izan den esparru honetan. Bien arteko arrakala sekulakoa da, baina, epe-motzean, duintasun minimo batera gerturatzeko urratsak egin litezke goi-mailako kontratuetan eta lan-baldintzetan.

Txikon, eta Gasteiz

Euskal Herriari dagokionez, berriz, bi kontu aipagarri nabarmenduko nituzke: bata da Txikonek K2 mendia neguan igotzeko egingo duen ahalegina.

Mutil horren ausardiak txundituta nauka; ea lortzen duen!

Eta bestea Gasteizko hiriak gurera ekarriko dituen hitzorduak dira. Txapela kentzeko karteldegia dakarkigute: emakumezkoen saskibaloiko Errege Kopa, gizonezkoen Euroligako lauko finala, ironman bat, maratonia, zikloturismoan Gran Fondo proba... Zorteko gu, Arabako hiriburutik hain gertu bizi garelako!

Markel Irizarren azken urtea

Amaitzeko, Debagoiengan urteroko mugimendua izango dugula uste dut. Bailara oso aktiboa gara eta ditugun talde, ekitaldi eta kirolari kopurua mantentzea ez da erronka makala! Dena den, hutsuneak ere utziko ditu 2019ak, azken hamarkada luzean bailarako erreferente nagusietako izan den Markel Irizarrek 16 urteko kirol ibilbide eredugarri bati agur esango baitio. Zure falta igarriko dugu!

Ikusten duzue, kantitateaz gain, kalitatea ere oso gertutik dastatzeko aukera izango dugula kirolzaleok 2019an. Gozatu deza zuela!



2018an, Goiena Klubeko bazkideok PUNTUA aldizkaria jaso duzue astero. Sari mordoxka irabazteko aukera izan duzue. Debagoieneko hainbat komertziotan deskontuak eskuratzeko aukera izan duzue.

Goiena Klubeko bazkide guztiei ESKERRIK ASKO.

ANIMA ZAITEZ

Eta ez bazara Goiena Klubeko bazkide, urte osoko 56 euroko kuotaren truke egin zaitez bazkide.

Anima zaitez. Deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira!

goienakluba⁴
Euskara irabazle. denok irabazle!

KULTURA 2019

Gogor eutsi beharreko oinarriak, ezinbestean



IKER BARANDIARAN (MUSIKA KRITIKARIA)

Lekunberriko taldeak eten mugabea egingo duela jakinarazi arren, 2019ko musikagintzan ez dira guztiak *berri txarrak* izango. Batzuek hainbeste asaldatzen dituen reggaetonak eta trapak gure artean gero eta presentzia handiagoa hartuko badute ere –bizitza legea–, arrazoi berberetatik hainbat belaunalditan zizelkatuta gelditu den *Enamorado de la muerte* iraunkortu egingo da baita ere dantzaleku, lokal eta garitoetan. Eta txoko anitz horietan hasiko dira Gares eus-

kararen mapan kokatzen *klika* egiteko mallak –eta ez ezinbestez mendiko arropak– probatzen dituzten bitartean.

Muguruza, SA, Glaukoma...

Atzean gelditu ei da oñatiarraren *Autokarabana*, nahiz eta Fermin Muguruza –hemen ere bai!– eta Sociedad Alkoholika gaztetuta ikusteko batek baino gehiagok seme-alabak etxean utzi nahiko dituen. Iraganera atzerabuelta itzela izango da Musakolako kiroldegian *iSHOT!U* jaialdiaz

gozatzea, nahiz eta egutegia gaurkotuko diguten Glaukoma raggamuffi talde handiak eta emakumeen jabekuntzaren adibide argia eta gordina den La Furia-k. Horrez gainera, belaunaldien arteko bitartekari izango da The Clash-en oinordeko den Itziarren Semeak.

Epelaburrean bizi izango dugun belaunaldien arteko elkartasunaren eta musika ulertzeko irkitasunaren adibide da Arrasaten egingo den elkartasun jaialdia; eta, horri esker, aurki zaba-

lik egongo da berriro Shot! grabazio estudioa, gure bailaran garatu den musika mugimendu aberatsaren oinarrietako bat izan dena eta izango dena.

Kooltur, Errekan Gora, Beratu

Eta egunerokotasunean zein datorren urtean musikazale eta musika sortzaileentzat ezinbestekoak diren eta izango diren oinarriak dira, baita ere, 2019an 10. edizioa betetzera doan Kooltur Ostegunak, astero Gaztetxea publiko guztietara zabaltzen duen

ekimen fidel, iraunkor eta erabat errotua.

Eskoriatzan urtero sasoi batean kaleak hartzen dituen Errekan Gora musika programa, 12. edizioa izanik sorpresak ekarriko dituena.

Eta iaz Oñatin arrakastaz estreinatu zen Beratu izeneko musikaren inguruko topaketa aberasgarria, jarraipena izango duena.

Bada, horietan guztiak dira, ezinbestean, eutsi beharreko oinarriak!



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Volkswagen

T-ROC BERRIA



Urte berri on!



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA
OSTALARITZARAKO, GARBITEGIETARAKO
ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA.

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banatzaile Ofiziala



¡URE BEZEROAK:



35 urte^{tik}
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

Urte berri on!

www.etxe-lan.com

etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso industrialdea 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)